

GUaiXE.net



Naiara Diezen
Saskibaloia taldea
desagertu da



Kirolak >> 12

Sakantzen Sareak Udako
ikastaroak antolatu ditu garilean.
Ekintzaileei laguntza eta
prestakuntza eskaini zaizkie



Sakanerria >> 5



>> 3

Enneco, Etxarrin



>> 9

Hondakin bilketa berria hemen da



Inasako inbertitzailea atzo Nafarroan egon zen >> 10



Portlanen, negoziazioa; 1. bilera, Lazaro Echeverrian >> 10



Olaztiko alkatea "terrorismoa goratzeagatik" ikertua >> 8



Arbazuarek kioskoa mustu dute San Pedro festetan >> 7



Etxarriko abesbatza Kantabrian lehiatzen >> 15

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumninoa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Nora Razkin Piñas

ZORIONAK potxola!!! Uztai-laren 2an zure 2. urtebetetzea ospatu zenuen, segi horren pizpirin eta alai. Muxu asko aita eta amaren partez.



Naroa

Gaur zure urtebetetzea da, ZORIONAK "MARISORGIN"!! Muxu handi bat zure Olaztiko eta Etxarriko familiaren partez.



Irune Karasatorre Sureda

Etxegorriko neskato polit honek 8 urte bete ditu! Zorionak Irune, per molts anys politte!!



Oier Ongay

Printzesa badugu eta orain printzesa heldu zaigu! Muxu handi-handi bat Iraia, amaxo eta zure familiaren partez!



Irati

Ongi etorri Irati!!! Astebete-rekin Sanjuanak zein Sanpedroak ezagutu dituzu jaldal Zorionak Inigo eta Leire (iristear den urtebetzeagatik ere!). Muxu asko kuadrilaren partez!

Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

garilak

5-11

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Antzerkia

Como como poco me descoco poco.
Garilaren 5ean, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiko Maisuenea gaztetxean.
Teatro que madura

Mendi irteera

Lakora. Garilaren 7an, domekan, Altsasuko Mendigoizaleak taldearen egoitzatik.

Deialdiak

Hipotekek kaltetutako Plataforma.
Garilaren 5ean, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

Euskal Presoak Euskal Herrira!
Garilaren 5ean, ostiralean, 20:00etan Irurtzungo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira!
Garilaren 7an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada.
Garilaren 8an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.



Lakora mendia.

objektibo tik



Musika bidaia munduan zehar:

Sakanako musikariek aukera hori eskaini zuten. munduko musikekin gozatzeko aukera izan zen ostiralean Olatzagutian. Hainbat hurbildu ziren Kituka Burundi, Youssef Kejji, Maider Ansa, Djembe taldea eta musikari brasildarren doinuak entzutea. Sakandar berrien migrazio prozesuen inguruko lekukotzak entzuteko aukera izan zuten.

objektibo tik: gutunak@guaixe.net

107.3 FM
beleixe online
edo uhinbak aplikazioaren bitartez www.guaixe.net

Ostiralero 9:30etik 10:30era **SAIOA**

Asteburuko agenda

Asteko errepasoa: albisteak, kirolak, Errotain zaldi ibilaldiak, Enneco, hondakin bilketa berria...

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

Piztu irratia!

AURKEZTUTAKOEN %77,77-K GAINDITU DUTE SELEKTIBITATEA: Aurreko astean egin zuten unibertsitatera sartzeko proba institutuko 9 ikaslek, guztiak ere D ereduakoak.

Haietatik 7k gainditu dute selektibitatea, %77,77. Nafarroan bigarren deialdi horretan aurkeztutako %70,34k gainditu du.

ezkaatza >>

>> **Etxarri Aranatz**

Enneco interpretazio zentroari baiezkkoa

Astehenean egindako bilkuran Etxarri Aranazko Udalak Enneco, Haritzaren Memoria interpretazio zentroa herrian egitea adostu zuen. Udalak "bere esku dagoen guztia egingen du, legalitatea muga izanik, proiektu hura aurrera ateratzeko". Bilduk eta NaBaik alde bozkatu zuten eta PPK kontra.

Etxarri Aranazko Udalak erabakitakoaren arabera zentroa sustatzen duen Nafarroa Bizirik fundazioarekin batera lantaldea osatu du. Lur saila eta bere erabilera zein baldintzatan utzi erabaki eta hitzarmen batean jasoko dute.

Hitzarmena

Agirian jasoa geldituko da Etxarri Aranazko Udala historia turismoaren bultzatzaile dela, "gainera ekonomia jardueraren jatorria izan daiteke". Etxarri Aranazko hirigintza planean aldaketa puntuala egingen da, aurreikusitako eremuaren kalifikazio aldaketa egiteko.

Nafarroa Bizirik fundazioa, bestalde, "proiektua adostutako moduan garatzea behartzen du bere burua. Horrela ez bada, Udalak konpromisoak deuseztatzeko eskubidea eskuratzen du". Hirigintza aldaketak udalak bere izenean egiteko aukera baditu ere, kostuak fundazioak ordainduko ditu. Planteamendu aldaketa behin betiko onartuko ez balitz hitzarmena automatikoki indarririk gabe geldituko da. Hilabete akaberako bilkuran onartu nahi du hitzarmen hori udalak.

Parte hartzea

Erabakitakoa parte hartze prozesu baten ondorioz izan dela azpimarratu nahi izan dute Etxarri Aranazko Udaletik. Gogora ekarri dute maiatzaren 23an interpretazio zentroaren jendaurreko aurkezpena egin zela lehenik, eta ondoren, garagarriaren 25eko bilera irekian, 30 bat etxarriarrek euren ekarpenak egin zituztela. Horretan oinarrituta hartu du erabakia udalak.

Basterretxea



Asteartean izan zen Etxarri Aranatz Nestor Basterretxea eskultorea. Harekin batera Nafarroako artearen ordezkari bat izan zen: Ramon Anda (eskultorea), Xabier Morras (pintorea), Josu Reparaz (Arbizuko arte aditua), Jaione Apalategi (NUP-eko irakaslea eta Jorge Oteiza fundazio-

ko kidea) eta Pello Iraizoz (hargina). Joxi Bakaikoa alkateak, Eneka Maiz zinegotziak eta Amaia Ijurrera kultur teknikariak egin zieten harrera.

Udaletxean, Nafarroa Bizirik fundazioko koordinatzaile Vicente Azpilikuetak egitasmoari buruzko beharrezko azalpenak eman

zizkien. Ondoren hura kokatu den parajea ezagutu zuten. Ideia Basterretxearen gogoko izan zen eta interpretazio zentrorako obra bat donatuko dela jakinarazi zuen. Interpretazio zentroa martxan jartzeko ekimen guztietan kolaboratzeko asmoa azaldu zuen.

>> **Etxeberri**



Mugarria agerian utzi zuteneko unea. UTZITAKOIA

Mugarri bat Aixita gazteluarendako

Dozena bat lagun bazkaltzera bildu ondoren, larunbat arratsaldean 25 bat herritar lekuko zirela mustu zen Aixita gaztelu ondoan jarritako mugarria. Nafarroa Bizirik fundazioaren ekimen horren bidez Nafarroako Erresumako defentsa sistemako eraikinetan mugarriak jartzen ari dira. Ekitaldian fundazioko kide batek, Iñaki Sagredo ikertzaileak eta udale-

ko ordezkari banak hartu zuten hitza eta iragana berreskuratzeko lanaren inguruan aritu ziren. Juana Urrak, Alicia Izkok eta Ainhoa Calvok utzi zuten agerian mugarria.

Bestalde, agorrilean arkeologoak hirugarrenez bueltatuko dira Aixitara. Gazteluaren aztarnak sendotu eta ur-zulo edo aljibe inguruan ariko dira lanean.

sanferminak

Kendal
kafetegia-taberna

948 272 501
Ermitagaña kalea baxua
Iruñea

EL PILAR
Taberna

Hamaiketakoak, bazkariak, afariak

Dastatu gure plantxa:
gibela, giltzurruna, txapela, antxo...

948 17 67 26 • Asuncion plaza 2
Donibane auzoa • Iruñea

Sanferminetan era PRESURRESLARIAK HERRIRA

MAPA MAP

KARTA

U2 Astartzeta
12:00 TXARRALAZO IRUDINA
16:00 D.I. ELEPUNTO
00:00 D.I. BALBER

U3 Ostizola
21:00 KIMIZERTZUA

U4 Larunbata
13:00 BIRINDISA
00:00 D.I. BALBER

U7 Igandea
23:00 LA DOS D (HABANAJA)
00:00 LA JOVENERA
00:00 D.I. ELEPUNTO

U8 Astizokena
18:00 TXARRANGA LES INCOGNITES
20:30 MOTXALA BAND
ELEKTROTXARRANGA
00:00 LUZIANO
00:00 D.I. JO TA TXO

U9 Astartzeta
00:00 BAD SOUND SYSTEM
00:00 D.I. BULL

U10 Astizokena
17:00 MERIENDA HERRITIA
18:00 KALEIRA MUSIKATUA
20:00 TTXE ELEKTROTXARRANGA
00:00 LUZIANO
00:00 D.I. JO TA TXO

U11 Osteguna
21:00 BERSO AFARIA
00:00 D.I. JO TA TXO
00:00 GATIBU
02:30 DUESTEP GARA

U12 Ostizola
00:00 ITZIANREN SEMEAK
00:00 D.I. BULL

U13 Larunbata
20:00 ELEKTROTXARRANGA
00:00 D.I. BULL

U14 Igandea
00:00 FERMIN BALENCIA

EGUNA

HERRIKO TABERNA

ERRESERBA
948 222 828
948 220 597



Uzta jasoz herria eraikiz

Xabier Reparaz Extramiana

astekoa

Uzta jasotzeko hilean sartu gara jada. Aitzina egiten zen moduan, gari bikorrek ahotzetik bereiztu eta udazkenetik egindako lanaren emaitza jasotzeko garaia da. Gure herrian aurten ez da ia zekalerik jaso, baina uzta opa-roa izan dugula esan dezakegu arro. Ekainaren 22an arbizuarrok gure herriaz eta herrikide-

ez arroago sentitu ginen, hila-betetako lanak ekarritako uzta aberatsak zirraraz indartu zizkigularik gure gogoak. Herri baten elkarlanak dakarrena, ikuskizun edo ekintza xume eta ederren gaintetik dago. Garai bateko elkartasuna gogoratu nahi zuen herri ekimen hark, azkenik gaurko elkartasuna eta

parte-hartzea sustatu du.

Ereindako haziaren antzera, izan ginena ulertu genuen lehenik, hura transmititu eta txertatu genuen herritarren borondatean. Handik sortu ziren indar eta ideiak. Ongarritutako lur hartan, guztion ekarpenez ureztatutako landare bikaina sortu zen. Hura bideratu eta zuzenduz, lore ede-

rrak emateko aukera eman zigun. Lore haiek ororen arreta erakarri zuten gure ekimenera, eta handik sortu ziren fruitu gozok jasotzean harritu genuen elkar. Izan ere, ikusleak bezain hunkituta ikusi genuen gure burua arbizuarrok.

Joan zen urtean Etxarrin, aurten Arbizun eta datorrenean

besteren batek hartu ahalko du testigua. Jakinaren gainean jarriko ditugu badaezpada ere, honen guztiaren benetako indarra, auzolanean sortutako ekimenek herritartasuna sendotzeko eta duten ahalmena dela. Herria eginez, gure nortasuna eta konfiantza indartzen baitugu bidean.

hara zer dien

Azenarioa, arrautza edo kafe alea, zein zara zu?

Urrea purifikatu dadin sutik pasatzea beharrezkoa den bezala, gizakiak izaera hezitzeko bizitzan probak pasatu behar ditugu. Garrantzitsuena, proben aurrean erantzuteko modua da. Alaba batek aitari kexati zioen, bere bizitza zaila eta konplikatu zela. Ezzekien zer egin aurrera jotzeko eta borroka egiteaz nekatuta zegoen. Arazo bat konpontzen

zueneko, beste bat azaltzen zen. Aitak, sukaldaria zenak, bere lantokira eraman zuen. Han, hiru lapiko urez bete zituen eta su bizitan jarri zituen. Ura irakiten hastean, batean azenarioak jarri zituen, bestean arrautzak eta azkenekoan kafe aleak. 20 minutura, aitak sua itzali zuen. Azenarioak eta arrautzak atera eta bakoitza ontzi batean utzi zituen. Kafea iragazkitik pasatu eta hiru-

garren ontzi batean utzi zuen.

Aitak alabarigaldetu zion: “Zer ikusten duzu?” “Azenarioak, arrautzak eta kafea” erantzun zion alabak.

Aitak alabari azenarioak ikutu zitzaion eskatu zion eta ikutzera koan bigunak zeudela konturatu zen. Gero, arrautza bat hartu eta hautsi zezan eskatu zion. Arrautzari azala kendu ondoren, arrautza gogortua zegoela ikusi zuen. Azkenik, kafea probatu zezan eskatu zion. Alabak kafe gozoaren zapoarekin disfrutatu egin zuen.

Alabak, harrituta aitari galdetu zion: “zer esan nahi du honek guztiak?”

Aitak esplikatu zion, hiru ele-

mentuek, hau da, azenarioak, arrautzak eta kafeak, “zoritar” berdinari aurre egin behar izan ziotela, hau da, irakiten zegoen urari; baina bakoitzak modu ezberdinean erantzun zuela.

Azenarioa gogorra iritsi zen uretara, baina, uretan irakiten egon ondoren ahul eta bigun bihurtu zen, desegin erraza.

Arrautza uretara ahula iritsi zen, baina ura irakiterakoan bere barrena gogortu egin zen.

Kafe aleek aldiz, ura irakiten egon ondoren, ura kolorez aldatu egin zuten.

Zein zara zu? Galdetu zion alabari. “Zoritarrek zure atea jotzen duenean, nola erantzuten duzu?”

Eta zu lagun, nolako zara? Azenarioa zara, gogorra dirudiena, baina zoritarra eta atsekabea iristen direnean ahul bihurtzen dena eta sendotasuna galtzen duzuna? Arrautza zara, bihotz malgukoa? Arima biguna duzuna, baina heriotza, banaketa, dibortzio edo lan kaleratze baten ondorioz gogorra eta zurruna bihurtzen zarena?

Edo kafe ale bat bezalako zara? Bizitzan, gauzak okerrenera doazenean, bere burua eraldatzen jakiten duena egoera desberdinetara moldatuz? Nola maneiatzen dituzu zuk ezbeharrak? Azenarioa, arrautza edo kafe alea zara? **Arantxa Sueskun Igoa, Psikologoa-Psikoterapeuta**

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

gu, langileok, pobreagoak. Paroaren igoera, lan prekarietatea eta bizi-kostu altuak dira burgesiari erabiltzen dituen tresnak etekin gehiago ateratzeko.

Sindikatuak dibisioak langileen posizioak ahuldu ditu azken urte hauetan. Gure etsaiei denok bat eginez aurre egin behar diegu. Kolpeak norabide berdinean joan behar dira.

Langileon batasuna oinarritik hasi behar da, lantoki bakoitzean, eztabaidatzea eta ekintzak eta egin beharreko helburuak antolatuz. Danok batera, antolakuntza ereduak eraiki ditzakegu borroka goi mailetara bultzatuz eginez eta hala gure giza-klaseko interesak lortu.

Guztionez erresponsabilitatea da klase sindikalismo borrokalari berreskuratzea, Pakto Sozialaren diskurtsoa bertan behera utziz eta gure posizioak indartuz oligarkia-renaurrean. Langileon baterakuntza da ematen hari diren borroka partzial guztiak bat egin eta modu horretan burgesia aseezina eta krudelari aurre egin ahal duena. **Osorik www.guaixe.net**

Arturo Carreñori erantzuna

Hasier Gonzalez Larrañaga. Bildu Altsasuko zinegotzia

Zure gutunari erantzunez, hurrengoak:

1- Ogasun zinegotzia izateari uko egin zenion, duintasunagatik. Sinatu besterik ez zenuela egingo, eta, hortaz, hori ez zen zuretzako lan nahikoa. Ogasun zinegotzia izatea, beraz, ez da lan duina. Aurreko legegintzaldietan egin zenuena hori izan zela pentsa dezaket, sinatzea besterik ez.

Ezkerreko politikak egiteko nahitaezko arlo bat da ogasuna. Bertatik zergak nork eta nola ordaindu behar dituen erabaki daiteke. Politika progresiboak martxan jarri edo ez, eta abar.

Ezkerreko zinegotzia zarenaz komentatzen dizut hori. Azkene-

ko hau ere dudan jartzen dut jada, izan ere, jubilatuen bazkaria errentaren arabera ordaintzearen kontra azaldu baitzara, gutxien daukatenek gutxiago ordaintzearen kontra zaudela uler dezaket.

2- Ogasun zinegotzi izateari uko egin zenionetik, Osasun kontseiluko lehen bilera izan zen arte urtebete pasa zen eta tarte horretan, Mank-eko batzarretik, Ataboko juntatik eta emakume batzordetik alde egin zenuen. Aurrekari horiek ikusita, zugar konfiantza edukitzea zaila da.

3- Batzordeetan egin dituzun proposamenei inoiz ez diegu ezetz esan, proposamen horiek landu eta garatu behar direla baizik. Bi esaldietan ezin da txabiskeen ordenantza egokitu, adibidez.

Bukatzeke, ondo dago Guaixe

bezalako komunikabide bat izatea Sakanan, eta honekin ados egongo zarela uste dut. Bierrik fundazioak agerraldiak antolatu dituzenean, han ikusi izan zaitut, eta ia astero bertan idazten duzu. Baina, Altsasuko aurrekontuak egitea tokatu zaidan bi aldietan, hauen alde ez egiteko erabili duzun argudioetako bat “euskarari diru gehiegi ematen zaiola” izan da. Sakanako Mankomunitateak partida handia dauka bere Euskara Zerbitzuaren barruan Guaixe bezalako euskarazko komunikabideak mantentzeko.

Nire aburuz, hori da politika egiteko daukazu modua. Argazkian ateratzea bai, baino benetan politika egiteko eskumena duzunean horrelako “perlak” botatzen dituzue.

Osorik www.guaixe.net

Lanpostuak defendatu. Etor-kizuna irabazi

Jon Iraurgi, Altsasuko Gazte Komunisten Batasuna

Patronalak lan-erreforma edozein prezioz ezarri nahi du. Langileok lanpostuak eta etorkizun egoki bat bermatzeko dugun bide bakarra borroka bateratua da. Hitzarmen kolektiboen defentsa soilik pauso bat da burgesiaren nahien kontrako erresistentzia.

Enpresariak langileon kontra jodute lan-indarraren esplotazioa handitzeko eta gure eskumenak ezabatzeko. Hori da kapitalismoak daukan bide bakarra krisi estrukturalari aurre egiteko.

Kapitalismoan gutxi batzuk aberasten dira gehiengoaren lanaren bizkarretara. Beraiek aberatsago bihurtzen ari dira eta

Guaixe

ARGITARATZAILA: Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net
GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU • 948 564 275 • 948 562 107 • guaixe@guaixe.net
PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net • Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net • 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa
Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa
Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea
Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso
Zuzentzailea: Felix Alzelai

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200 ale

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAIALA
 Hezkuntza Politikako Sailburuordetza

MOTZERRA ERABILTZEN IKASTEKO:
Etxarri Aranazko Udalak motzerra erabiltzen ikasteko ikastaroa antolatu du. Hilaren 13an izanen da, larunbatean, 9:00etatik

13:00etara, kultur etxean. 15endako tokia dago eta izena emateko udaletxetik pasa behar da bulego ordutegian.

sakanerria >>

SAKANA

Udako ikastaroak antolatu ditu Sakantzen-ek

Sakanako garapenaren sustapenerako sare sozialak, Sakantzen Sareak, Sakanako Udako Ikastaroak antolatu ditu. Hilaren 17 eta 30a bitartean lau ikastaro izanen dira. Laurak ere enpresa berriak sortzeko asmoa duten pertsonen laguntza zein prestakuntza eskaini eta Sakanako ekintzailetasuna indar-

tzeko asmoz antolatu ditu Sakantzen Sareak. Aurretik beste hiru ikastaro ere antolatu ditu sareak: Ideiak Garatzeko Metodologia; Business Model Canvas eta Bideragarritasun planen practice-class. Sareak Cederna-Garalur, Nafarroako Gobernuak, Europako Leader Programa eta Sakanako Garapen



Izen ematea

sakantzensarea@gmail.com helbidera idatziz eta 690 036 879 telefonora hots eginez daiteke.

Agentziaren babesaz eta laguntzaz antolatu ditu ikastaroak.

Programa

Nekazaritza ekologikorako talde-prozesu dinamizazioa eta kohesioa

Garilaren 17an, asteazkenean, 16:00etatik 20:00etara, Altsasun. Gaur egun, nekazaritza ekologikoaren inguruan talde eta esperientzi kolektibo ugari, autogestiona tuak ala ez, sortzen ari dira. Talde-prozesu hauetan dinamizazioa, kohesioa eta ikasketa kolektiboa ezinbestekoak dira. Hori dela eta, ikastaroan nekazaritza ekologikoaren oinarriak aztertuko dira, dinamika parte-hartzaileen bitartez etorkizunean gauzatzeko teknika ikasketa eta kohesioa landuz.
Irakaslea: Silvia Larrañeta Armendariz. Arrea Elkarrekin Agroekologiakoaren kidea. Nekazal ingeniari teknikoa, Ingurumen Zientzietan Lizenziatua eta Agroekologian Masterduna.

Kontabilitate eta fiskalitate prestakuntza ikastaroa hasiberrientzat

Garilaren 18an, ostegunean, 10:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara, Lakuntzan. Autonomo eta mikro-enpresendako ikastaroa. Helburua prestakuntza praktikoa ematea da, kontulariak ez diren baina kontabilitate ezagutza praktikoa behar dituzten pertsonen zuzendua. Ikastaroa "zerotik" hasten denez, ez da beharrezkoa fiskalitateko eta kontabilitateko aurretiazko prestakuntzarik.



Irakaslea: SAK-IN Kontsulting Kooperatiba.

Turismo aktiboa. Legedia eta kudeaketa

Garilaren 23an, asteartean, 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era Gure ingurune naturalak eta Sakanan egiten diren kirol lehiaketa eta ekimen arrakastatsuek aukera ematen dute arlo horretan Turismo Aktiboko enpresak eta lanpostuak sortzeko. Gai horietan 20 urte baino gehiago eraman dituen aditu batek arlo horren berri emanen du, Turismo Aktiboko egitasmoak martxan jarri ahal izateko legediari buruz jakin beharrekoa ezagutaraziz. Horretaz gain, adibide praktiko-

en bitartez Turismo Aktiboaren kudeaketa egoki eta eraginkorra nola egin ikasiko da.

Irakaslea: Jabier Fuertes Udaondo. Troka Abenturako gerentea. Eus-kadiko Turismo Enpresen Elkarrekin AKTIBA-ko presidentea. Turismo Aktiboko aholkularia hainbat erakundetan.

Inkubategi kooperatiboa. Jarduera ekonomiko berriak merkatura ateratzen laguntzeko egitura

Garilaren 29an eta 30ean, astelehenean eta asteartean, 10:00etatik 14:00etara, Lakuntzan Sakantzen Sareak sortu nahi duen Inkubategi Kooperatiboaren aurkezpena egingo da. Inkubategi Kooperatibo hori enpresa berri

edo negozio txikiak sortzeko asmotan ari diren pertsonen zuzendua dago, haiei hainbat erraztasun eskaintzeko eta ekintzailetasun komunitarioa bultzatu asmoz. Abantaila horien artean, enpresa sortzearen tramite eta konstituzio gastuetan sartu gabe, produktua edo zerbitzua berandu baino lehen merkatura ateratzeko aukera dago, gastuak eta epeak murriztuz. Bestalde, autonomoen kuota ordaindu beharrean gizarte-segurantzako erregimen orokorrean integratuz norberaren ordainsariak lan karga errealerako egokitzeko malgutasuna eskaintzen du. Proiektu ezberdinak Kooperatiba berdinaren barnean egotean elkarlana eta sinergiak lortu daitezke. Azkenik, nego-

zioaren lehen hilabeteetan aholkularitza zerbitzuen laguntza eskainiko litzateke.

Inkubategi Kooperatiboak dituen abantailak praktikan sor daitezkeen arazoekin kontrastatu egingo dituzte, ANEL eta SAK-In Kontsulting-en eskutik. Ikastaroak aukera emanen die proiektu edo enpresa berriak sortzeko asmoan dabilen pertsonen, lagungarri izan dakieke tresna horren ezaugarriak zuzenean ezagutzeko, kasu praktikoa aztertuko baitira arlo ezberdinei lotuta: inbertsioa, arduraren partekatua, esparru laborala, zergak, finantza eta kontabilitate kudeaketa...

Irakaslea: Asociación Navarra de Empresas Laborales, ANEL.

+www.guaixe.net

2x1 Txiki Txiki
haurren arropa eta lentzena

948 46 73 08
Ferialeku 2 · ALTSASU

nc nerea cenoz
nutrición

Giza Elikaduran eta Dietetikan Diplomatuak (Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacenoz.com
nereacenoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan

Estafeta 16, atzea · LAKUNTZA
(Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

R.P.S. Nº 272/04

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Festetako zerbitzu osoa eskaintzen dugu

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279
hijosdegoikoetxea@yahoo.es

SAKANA

Aldaketak tren ordutegietan

Igandean Renfek ordutegi aldaketak egin zituen Nafarroako eskualdeko tren zerbitzuan. Ordutegi doikuntza horrekin "nafarren mugikortasuna hobetuko da, eta horrela bidaiariek aukera izanen dute Madril, Bartzelona, Burgos, Valladolid eta Salamanca helmuga duten distantzia luzeko trenak hartzeko". Renfek Sakanan eskaintzen duen zerbitzuari dagokionez, aipagarriena da 8:00ak inguruko Iruñerako trena 10:30era atzeratu dutela, gainontzeko zerbitzuetan ordutegi doikuntza txikiak egin dituzte.

San Ferminetara garraio publikoan

Iruñeko festetara garraio publikoan joan nahi dutenek Renferen eta La Burundesaren eskaintzak dituzte. Tren konpainiak betiko ordutegiak mantendu ditu joan etorrietarako. Hirietatik Iruñerako trenetaz dutegeldialdirik egingen Sakanan. Autobusei dagokionez, astegunetan Iruñera joateko ordutegiak mantendu ditu La Burundesak. Baita larunbatetan ere, data

horietarako kendu duen 10:00etako zerbitzua izan ezik. Astegunetan Iruñetik bueltatzeko betiko ordutegiak mantenduko dira, 12:00etako salbu. Gainera, 20:00etako autobusaren irteera ordu bat atzeratu da eta 21:00etan abiatuko da Sakanarantz. Olatzagutiatik abiatzen dena 21:00etan aterako da. Larunbatetan 13:30eko eta 16:00etako zerbitzuak kendu ditu La Burundesak. Baina San Ferminetatik gauero 24:00etan bueltatzeko eskaintza egin du.



Trena Izurdiagatik pasatzen.

Ordutegiak				
Gasteiz	Altsasu	Etxarri Aranatz	Uhartte Arakil	Iruña
10:05	10:38	10:44	10:50	11:10
15:30	16:01	16:07	16:12	16:37
19:05	19:36	19:42	19:53	20:13

Iruña	Uhartte Arakil	Etxarri Aranatz	Altsasu	Gasteiz
8:37	9:07	9:12	9:18	9:50
16:42	17:06	17:12	17:18	17:53
19:30	19:50	19:58	20:04	20:37
*19:58	20:23	20:28	20:34	21:10

*Soilik igandeetan.



Musika eskolakoak emanaldi batean. ARTXIBOA

Musika eskolendako laguntza txikiak

Nafarroako Gobernuak musika eskolen funtzionamendurako diru-laguntzak eman dizkie udalei. 53 udalek jaso dute ekarpena, haien artean Sakanako bostek.

Aipatu laguntza bi ordainketetan banatuta jasoko dute udalek. Toki administrazioak Nafarroako Gobernuarekin kexu azal-

Diru-laguntzak herrikoa		
Herria	Udalaren ekarpena 2012an	Diru-laguntza
Irurtzun	62.479,51	14.992,93
Lakuntza	56.353,84	11.003,99
Etxarri Aranatz	33.000	18.990,48
Altsasu	190.016,23	28.851,09
Olatzagutia	21.500	3.301,20
Guztira	363.349,58	77.139,69

du dira behin baino gehiagotan musika eskolen finantziarioa

udalen eta ikasleen bizkar uzten ari delako.



Hilean gehienez 25 euro ordaindu beharko litzateke Gipuzkoako bidesarrietan

Ohiko gidariek izanen lukete aukera hori. Nafarroako Gobernuak koordinazioa eskatu du

Gipuzkoako Foru Aldundiak herrialdeko errepide sarea ordaindu ahal izateko Iparraldeko Autobian (A-1) eta Leitazarango Autobian (A-15) bidesariak jartzea erabaki du. Arkupe sistema jarriko luke. Gipuzkoarrek ez lukete bidesaririk ordaindu beharko. Baina Gipuzkoara sarri joaten direnak

hilean gehienez 25 euro ordaindu beharko litzateke. Hala aurreratu zuen Larraitz Ugartek, Mugikortasuneko eta Bide Azpiegiturarako diputatuak.

Beste erakundeek haien proposamenari ekarpenak egiteko prest daudela azaldu du Ugartek. Astelehenean Nafarroako Gobernuko Sustapen kontseilari Luis Zarralukirekin bildu zen. Arrazoiak ulertuta ere, halako neurriak ezar-



Bidesarien proposamenak polemika sortu du.

tzeko koordinazioa eskatu zuen. Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako buruak eta estatukoak biltzearen aldeko agertu zen Zarraluki, "bidesariak jartzea estatu mailan egiten den zerbait delako". Bestalde, gidarien artean diskriminazioa egitea legezkoa ote den aztertu beharko litzatekeela gaineratu zuen.

Gipuzkoako bidesariek nafarrak kaltetzen dituztela esan zuen asteartean Juan Luis Sanchez de Muniainek, Nafarroako Gobernuko bozeramaileak. Nafarroan halakorik ez dela egingen ziurtatu zuen.

Uhartte Arakil

Etxeak zaharberritzeko laguntzak indarrean

Beste administrazio batzuen laguntzekin bateragarriak dira

Uhartte Arakilgo udalak Arakilen bizitegiarako eraikinak zaharberritzeko edo eraberritzeko laguntzak arautzen dituen ordenantza onartu du. Udalak gerora etxe gisa erabiliko diren eraikinetako lanak lagunduko ditu, betiere, 15 urte edo gehiago badituzte.

Hainbat lanek dute laguntza jasotzeko aukera: eraikinaren egitura egokitzeko egindako lanak; eraikinaren elementu komunak funtzioen aldetik egokitzeko obrak; eraikinetako bizigarritasuna egokitzeko obrak; espazio libreen egokitzapena eta eraikina koka-



Erraldoiak Uhartte Arakilgo etxe ederren paretik igarotzen.

tzen deneko lurzatiaren itxiturak eta, azkenik, bizitegi kolektibotarako eraikinetan oztopo arkitektonikoak kentzea.

Baldintzak

Interesatuak lanak egin aurretik egin beharko dute eskaera eta udalak jarritako hainbat baldintza

bete beharko dituzte, esaterako, udalarekin dituzten zerga betebeharrak egunean izatea. Etxebizitza guztia ukitzen denean, obra egiteko aurrekontua 30.000 eurotik gorako lanak lagunduko ditu udalak. Fatxaden kasuan, berriz, 6.000 eurotik gorakoa.

Eraikinetan etxebizitza gehiago eraikitzen badira bakoitzak sarrera independentea izan beharko du. Ezin izanen da azalera handitu ezta eraikina bota eta berriro jaso. Lanak egin ondoren 6 urte pasatu beharko dira eraikina ostantu, landetxe edo halako erabilera emateko. Bestalde, katalogatuta dauden eta konplexutasun bere-

ziko zaharberrikuntza duten eraikinei dagokionez, faseka zaharberritzea onartu daiteke. Halakoetan laguntza fase bakoitzeko emanen dira.

Laguntza ematerakoan kontuan izanen da uhartearra izatea eta eskatzailearen diru-sarrerara maila. 60 metro karratura arteko eraikinetan egindako lanengatik udalak gehienez 1.000 euro emanen ditu. 60 eta 90 metro karraturako eraikinetako lanen gehienezko kopurua 2.300 eurokoa izanen da. Azkenik, 90 metro karraturatik gorako eraikinetan metatutako laguntza 3.600 eurokoa izanen da.

» Arakil

Bertako ekonomia aktibatzekeo planeko lanak hamaika herritan egingen dira

318.552,88 euroko balioko lanak egingen dira. Kontzejuek %56 ordainduko dute eta udalak %44

Ostegunean egindako bilkuran onartu zituen Arakilgo Udalak Arakilgo tokiko ekonomia aktibatzekeo planeko lanak. Hasiera batean, udalak 120.000 euro bideratu behar zituen planerako, baina bere finantza egoera aztertu ondoren eta jasotako erantzuna ikusirik Arakilgo Udalak diru partida 140.000ra igotzea erabaki zuen. Horretaz gain, udalak erabaki zuen lanen bat bidera ezina bihurtzen bada, kontzeju horri ematen dion urteroko laguntzako diru kopurua bi urtez aurreratzea.

Arakilgo Udalean pozik daude jasotako eskaera kopuruarekin, baita egin beharreko lanen aniztasunagatik. Kontzejuek dituzten beharrak asetzeko baliagarriak izanen direla nabarmendu du Ruben Goñi alkateak.

Egiarreta ez beste gainontzeko kontzeju guztiek aurkeztu dituzte lanak udalaren diru-laguntza jasotzeko. 10 kontzejuetatik 3k lan bat baino gehiagorako diru-lagun-



Etxarrengo lanak. ARTXIBOA

tza eskatu dute. Lanak aurten egin beharko dira eta kontzejuek eskualdeko enpresen 3 aurrekontu izan beharko dute gutxienez. Kontzejuek lanak hasierako prezioan baino merkeago ematen badituzte, aldea kontzejuaren eta udalaren artean banatuko da proportzionalki.

Lan gehiago

Udalak 5 hilabetetarako kontratatutako langileak hainbat lan egingen ari dira, esaterako, Izurdiaga eta Ekaiko elkarteak eta Ihabarko frontoia margotu dituzte. Eurragatik hondatu diren dermioko bideak eta beste bideak ere konpontzen ari da pala erabiltzen duen langilea. Itsasperriko zelai-ko izkina batean komuna publikoa eraikitzen hasi direla azaldu digu Goñik, "hara doazen edo handik pasatzen direnek erabiltzeko".



Iturraskarri proiektuaren barruan Egiarretako garbitokia berreskuratu zutenekoa. ARTXIBOA

Lanak	Herria	Lana	Onartutako aurrekontua	Diru-laguntza
	Aizkorbe	Benta eta herri arteko bihurguneak argiztatu	4.500*	
	Urritzola	Herrira dermioko bidea asfaltatu eta egokitu	40.000	17.600
	Errotz	Estalpea eremu publikoan	21.131,57	11.212
	Izurdiaga	Kontzeju etxeko teilatua	25.833,5	11.367
		Erabilera anitzeko gelaren egokitzapena		
	Etxeberri	Frontoia estaltzeko egurrezko egitura	60.000	26.400
	Etxarren	Haur parkea jarri	24.408	10.739,52
		Kontzeju etxeko leihoak aldatzea		
		Argiteri publikoa zabaltzea		
	Ekai	Hilerria zaharberritu eta handitu	44.375**	19.525
		San Lorenzo ermita zaharberritu		
	Zuhatzu	Maisuen etxea zaharberritzea, alokairurako	52.000	21.500+9.000***
	Satrustegi	Kontzejuaren etxearen erreforma	17.785,31	7.824,74
	Hiriberri	Hilerria horma-hilobietekin handitu	16.540	7.287
	Ihabar	Kontzeju etxe ondoko biltegiko teilatua	25.481,32	11.212

*Kontzejurik ez dagoenez udalak egingen du. **Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza kenduta. ***Etxebizitzaren zaharberritzeko bulegoaren laguntza.

» SAKANA



Heldu den astean Urbasako kanpina zabalik

Beharrezko konponketa, garbiketa eta bestelako lanak erritmo onean doaz Bioitza Urbasa kanpinean eta asteazkenerako atek zabaltzeko moduan izanen da. Mendigorriako Errota kanpineko Ana Beriain Apes-tegiaren eta Etxarri Aranazko kanpineko Floren Vicente Imazen artean kudeatuko dute azpiegitura. 15 pertsona ariko dira lanean.

» Arruazu

Mustutze bikoitza festetan



Festetan giro bikainarekin mustu zuten kioskoa arruazuarrek.

Kiosko berria eta zeharbidean egindako lanak mustu dituzte

Urtero festetan musikariendako eszenatokia jarri eta kendu egiten zuten arruazuarrek. Baina txikia zen eta erdi hautsiririk zegoen. Berria erosi edo kiosko bat egitea, bi aukerak zituzten udalean eta azken horren alde egin zuten. Auzolanean herritarrek, eta kisu-gileen eta zurginen laguntzaz, udal-letxe parean kioskoa eraiki dute.

Harri eta zurez egina da. Musika emanaldiak daudenean, aurreko baranda kendu egingen dute.

Kioskoaren beheko aldea hutsik dago. 120 cm-ko altuera duen udal biltegi txikia izanen da. Horretaz gain, musikariendako argi hartu-nea eta argiteria publikoko kutxan izanen dira.

Bestalde, lehen errepide zena, Arruazuko Kale Nagusia, guztiz eraberrituta gelditu da azken lanen ondoren. Accionako langileei lan txiki batzuk despeditzea besterik ez zaie gelditzen.

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

Tel.: 948 562 829
faxa: 948 563 002

Unamuno
ALTSASU

BEHAR DITUZUN HERRAMINTA GUZTIAK!

BUJANDA
okindegia

bai

Tel.: 948 467 503
Kale Nagusia 31, OLAZTI

etxarri aranazko udala

UDAL PLANEN ALDAKETA PUNTUALAREN ESPEDIENTEA: HASIERAKO ONESPENA

Etxarri Aranazko Udalak, 2013ko ekainaren 10ean egindako osoko bilkuran, aho batez, ondoko akordioa hartu zuen:

- 1.-Hasiera batez onestea Etxarri Aranazko udalak sustatutako Hirigintza Planen aldaketa puntualaren espedientea (antolamendu xehe-tutako determinazioak) Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 74. artikuluan, 79.3 artikulutik hara igorrita, xedatutakoari jarraituz.
- 2.-Espedientea jendaurrean jartzea hilabeterako, Nafarroako ALDI-ZKARI OFIZIALEAN iragarki oholean eta Foru Komunitateko egunkarietan iragarkia paratuta.



ETXARRI
ARANAZKO
UDALA

Etxarri Aranatzen, 2013ko ekainaren 21ean.
Alkatea: Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena

» Iturmendi

Hasi dira eskola berriko lanak

Heldu den urteko apirilera lanak despeditu eta 2014/2015 ikasturtean erabilgarri izanen da

Aurreko astean hasi ziren ikastetxe berria jasotzeko lurra mugitzen. Lanek 410.000 euroko (BEZ barne) aurrekontua dute. Aurreko legegintzaldian akordioa lortu zuten udalak eta Hezkuntza Departamentuak. Haren arabera, departamentuak ordainduko du ikastetxea, baina udalak aurreratuko du dirua. Udalak bere gain hartu zituen eraikuntza-proiektu honen esleipen-espedienteak izapidetzea, proiektua idazteaz obren zuzendaritza tekniko eta haiek egikaritzea. Hasierako asmoa zen despeditu berri den ikasturtea eskola berrian egitea.

Adostutakoaren arabera, hiru urtetan zatikatu da egin beharreko inbertsioa. Joanen urtean udalak 50.000 euro jarri eta ondoren jaso zituen. Horrekin proiektua, inguruaren birplanteamendua eta beste gintzuzten. Aurten 150.000 euro



450 m²-en banaketa: Hiru ikasgela (48 m²), erabilera anitzeko ikasgela bat (65 m²), ezkaratza (56 m²), zuzendaritza (13 m²), bainugelak eta trastelekua (40 m²), kanpoaldeko estalpea (58 m²).

aurreratuko ditu udalak eta heldu den urtean 210.000 euro. Departamentuak orain arte bezala agindutakoa ordaintzen segitzea espero dute udalean, bestela udaberrirako ez litzateke bukatuko.

Hasiera batean eraikin bioklimatikoa eta energia eraginkortasuna kontuan izanen zuena aurreikusi zen. Baina finantza krisiaren ondorioak ere egitasmo horretara iritsi dira eta bertan behera gelditu dira asmoak. Udala geotermia bidezko berokuntza aztertzen hasi da baina ez du ezer zehaztu oraindik.

sunak kontuan izanen zuena aurreikusi zen. Baina finantza krisiaren ondorioak ere egitasmo horretara iritsi dira eta bertan behera gelditu dira asmoak. Udala geotermia bidezko berokuntza aztertzen hasi da baina ez du ezer zehaztu oraindik.

» Altsasu

Euskarazko jarduerak 239 haurrendako



Udan Euskaraz haurrak soka saltoan.

Hilarekin batera hasi eta harekin batera despedituko da aurten Udan Euskaraz programa. 239 haurrek eman dute izena, hasi 3 eta 4 urtekoetatik eta 12 urte bitartera arte. Guztiak 11 taldetan banatu dituzte. Haietatik 10 D ereduko ikasleek osatuta daude eta haien artean

euskararen erabilera sustatu nahi du programak. Beste taldea A ereduko ikasleek osatuta dago eta haien euskara ezagutza handitze-ko eta eguneroko esapideak normaltasunez erabiltzeko helburuz sortu da, Joxepi Markinez ludotekariak azaldu digunez.

Taldee dagokienez, Haur Hezkuntzan aritu diren taldeak dira jendetsuenak. Udan Euskarazko benjaminak ludotekan biltzen dira goizero; gainontzekoak, berriz, Zelandi eskolan. Makina bat ekintzetan parte hartuko dute garilean: animaliak ikusteko bisitak, igerilekua, okindegira bisita, dantza tailerra, eskulanak, Olatzagutiakoekin elkartrukea eta Donostiarako txangoa (handiak) edota azken festa herriko plazan.

Programako talde guztiez arduratzeko 23 begirale eta bi koordinatzaile (bat HHkoendako eta beste gainontzekoendako) ari dira lanean. Udan Euskaraz programa agorrilerara ere luzatu du udalak, ludotekan izanen da. Dagoeneko izen ematea despeditu da.

» Olatzagutia

Piratak euskaraz

San Joan egunarekin batera hasi zen Udan Euskaraz programa Olatzagutian. 5 eta 12 urte bitarteko 86 haurrek parte hartzen dute piratak gai nagusi duten programan. Adina kontuan izanda zazpi taldetan daude banatuta haurrak eta haiekin 9 begirale ari dira.

Astegunetan, 10:00etan, ludotekan biltzen dira eta 13:00ak bitartean, herrian barna edo herri inguruan ibiltzen dira. Piraten gaiarekin zerikusia duten jarduerak lantzen dituzte, euskaraz.



Haur olaztiarrek primeran pasatzen dute Udan Euskaraz. UTZITAKOIA

» Olatzagutia

Alkatea "terrorismoa goratzeagatik" ikertuko dute

Espainiako Auzitegi Nazionalako 4. instrukzio epaile Fernando Andreuk Olatzagutiko alkate Gurutze Rodriguezen kontrako aurretiazko eginbideak ireki ditu. GALek 1984an hildako Angel Gurmindo Lizarragaren, Steinen, argazkia udal bilkura gelan jartzeagatik ustez "terrorismoa goratzea" leporatzen dio. Manos Limpiasen salaketa baten ondoren etor da epailearen ekinbidea.

» Ppri eskaera

Egiari Zor fundazioko Elena Bartolomek (Josu Muguruzaren bikotea), Lurdes Oñederrak (Ramon, Katturen arreba) eta Eneko Etxeberriak (Jose Migel Etxeberriare, Naparraren senidea) osteguneko udal bilkurako galde eta erreguen txandan hitza hartu zuten. Ppri zuzenduta haien jarduna "bizi dugun sufrimenduaren zati batarintzeko" biderazatela eskatu zioten.

GALek eraildako Angel Gurmindo Steinen argazkia bilkura gelan zegoelako sortutako gertarak eta PPko zinegotziek egindako erabilera gogor salatu zituzten. 29 urteren ondoren familiariminerantzia emandiotelana barmenduzuten fundazioko kideek. Egiari Zor-eko kideek esan zuten, "Estatuak eskura zituen bitarteko guztiak erabili ditu disidentzia eliminatzeko". Hariaipamena egiteko esapide "leunak" eta hura praktikatu zutenek jasotako onurak salatu zituzten.

Egiari Zor-eko kideek haien senideen memoria aldarrikatzeak asmo irmoa berretsizuten. "Gizarte librea eta justuago bateraikitze zoru etikoak, besteak beste giza faktorea jaso behar duela" uste dute. Baina "tranpari" ez egitea eskatu zuten: "sortutako sufrimendu guztiak jaso gelditu beharko du, hortik aurrera berriro gertatuko ez dela bermatu ahal izateko".

» Etxarri Aranatz



Kamararen esanei jarraiki aritu ziren etxarriarrek.

Mugitzeko gonbitea

Etxarriko musikariek kantu ezagun baten bertsioa ondu dute eta herri mugimenduko, kulturako, kirolariko ordezkari eta hainbat herritarrekin batera, Lip Mugi-a grabatu zuten larunbat goizean. Euskal Herria mugitu eta aktibatze deia luzatzen du Lip Mugi-ko leloak: altxa ipurdi hori mugi, kalea astintzera mugi, hi mugi.

Elizkorta, kultur etxe eta par-

kean grabatu zuten bideoklip erraldoia. 10:30ean bildu ziren eta 14:00ak bitartean izan ziren grabatzen. Auzate ederra izan zuten indarrak hartzeko. Larunbatean bertan flashmoba grabatzekoak ziren, baina atzeratu egin da eta festen aurretik deialdia egiteko asmoa dago. Bitartean koreografia ikasi nahi duenak sarean du ikusgai.

» MOTZEAN

Manifestazioa deitu dute lastaileko prozesuetako auzipetuek

Espainiari "konponbide baketsua" trabatu nahi izatea egotzi diote

Bi epaiketa salatzeako manifestazioa lastailaren 26an egingen da Bilbon, Erasoan gainera, Euskal Herria aurrera leloarekin. Gazte mugimenduko kide izateagatik 40 pertsona epaituko dituzte lastailaren 14tik aurrera. Eta 17an hasiko da herri tabernen auzia, beste horrenbeste

euskaldun epaituko dituen. Azken horien artean daude Jaione Intxaurraga, Juan Kruz Aldasoro eta Joseba Garmendia. + www.guaixe.net

» Larraun garbia

Helburu hori gogoan zutela 15 batarkildar eta irurtzundar bildu ziren larunbatean. Ibaian gora egin zuten, Larraldeko presa eta Plazaola artean eta Goldaratz parean aritu ziren ibai bazterretik zakarrak biltzen. Hodiak, plastikoak, botilak, bidoia eta beste kendu zuten naturatik. Udazkenean Arakil eta Larraun ibaiak bat egiten dutentokian zerk garbitzeko asmoa azaldu dute bi herrietako udalak.

barrutik kanpora

Portland-en asmoa, interes orokorrekoa

Aspalditik ari da ohartarazten 3Mugak Batera plataforma, Portland-en asmoa, bere labeak hondakinak errausteko erabiltzea dela, eta aldi berean gainera, langile gehiago kaleratzea.

Baina bere asmoaren lehen helburua, hauda, hondakinak zementu-fabrikaren kudeatzearen aldeko apustua, argi geratu bada ere lehen dabil UPRs izendatzeko eskatuz eta lortuz eta gero udalaren araudia saihesteko eta hondakinak erreahalizateko beharrezko lanak burutzeko interes orokorreko proiektua izendatuz, orain beste 39 langile kaleratuko dituela iragarri du, aurretik kaleratutako beste 29 egehitu behar zaizkienak. Honek esan nahi du zementu-fabrikako langileen %45 ez libratu dela (edo libratu nahi duela) eta harrobietako %67z baino gehiagoz. Berriz ere Nafarroako Gobernuaren "engainatu" egin du, hondakinak erraustea baimenduz gero, lanpostuak mantenduko zituelako amarrua erabiliz.

Argi geratu bada Portland-ek egin behar dituen inbertsioak hondakinak kudeatzeko beharrezkoak dituen obrak burutzeko besterik ez direla, I+G+B (Ikerketa + Garapena + Berrikuntza) saileko langileen kaleratzeak agerian utzi du zein den FCC-ren zementu-fabrikaren lehentasuna Olatziko plantan.

Gezurak besterik ez ditugu espero behar bihozgabeko multinazional honen ahotik. Baina iruzur handi hau ez zen posible izanen Nafarroako Gobernuaren parte hartze eta laguntzarik gabe. Lotsagorritu gabe dio honek, enpresa pribatu honen proiektua, errausketa eta kaleratze gehiago aurreikusten duena eta beste inon nahi izan ez dutena (beren alderdiko zinegotziak ere ez), interes orokorrekoa dela, hau da, guztion onerako ... Sakanan. <http://olaztinerkausketarikez.blogspot.com.es>

3 Mugak Batera

SAKANA

Gehiago birziklatzera

Azkenik, astelehenean jarriko da martxan hondakinak biltzeko sistema berria martxan. Beharrezko azpiegiturak jarrita, heldu den astetik aurrera sakandarren gehiengoak hondakinak etxean beste modu batera kudeatuko dituzte, gehiago birziklatzeko. Gaur egun ibarreko hondakinaren %24,27 birziklatzen da, egungo legediak %50a eskatzen duenean. Sistema berriarekin kopurua hirukoitzu eta %80 birziklatzera iritsiko da.

Sakanako Mankomunitateak sustatu duen sistemaren bidez, hondakin organikoa sorlekuan bertan berreskuratzea bulkatzen da. Horretarako banatu dira konpostagailuak eta jarri dira auzo-konpostagailuak ere. Horrek hondakin organikoak jaso eta tratamendu plantetara eramatea galarazten du eta horrela garraioan, energian eta tratamenduan aurrezten da. Gainontzeko hondakinekin etxeko etxeko bilketa eginen da. Hala egingen da Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranz, Iturmendi, Bakaiku, Urdiain eta Olatzagutian.

Populazio txikiago duten herrietan, (Arakil, Irañeta, Arruazu, Ergoiena eta Ziordia) konpostagailuak bi aukeren batera ekar-

Lakuntzan haurrak auzolanean



Larunbatean auzolana zegoen deituta Lakuntzan. Auzolan berezia izan zen, Lakuntzako Udalak 10-12 urte arteko haurrak deitu baitzuten herriaren alde lan egitera. 30 neska-mutiko inguruk erantzun zioten udalaren deiari eta lan polita eginen aritu ziren: herriko zaborrontziak margotzen. Zaborrontziak horiz-ontziak eta beste jasotzeko-, grisez-errefusa jasotzeko- eta berdez-organikoa jasotzeko- marraztu zituzten, hondakin bilketa sistema berrirako. [+www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

pen guneak jarri ditu Mank-ek. Haietara giltzarekin sartu eta hondakinak barruan dauden edukiontzietan utzi beharko dituzte. Irurtzunen, bestalde, 6 hilabeteko informazio aldia martxan dago. Altsasuko Udalak, berriz, herrialdetako egiteko konpromisoa hartu zuen.

766.541 euro

Aurrekontu hori du sistema

berriak. %37 konpostajeako gastuak estaltzeko, %36 etxeko bilketarako eta %27 sistema mistorako. Aurrekontua Mank-en baliabideekin (379.541 euro) eta mailegubatekin (367.000 euro) estaliko da. Gainera, Nafarroako Hondakin Partzuergoak herrialdean konpost bidezko tratamendua diruz laguntzeko milioi erdiko diru-saila onartu du eta Mank-ek zati bat jasoko duela aurreikusten da.

Altsasun auzo-konpost ekimenak lagundu eta babestuko ditu

Altsasun martxan jarriko diren auzo-konposteko ekimenen alde egingen da. Horretarako Mank-ekin ariko da elkarlanean udala. Bi erakundeetako teknikariek eta ordezkariak kokapen egokien aztertu ondoren, auzo konpostagailuak ezartzeko lurra erabiltzeko baimena ahalik eta arienen emanen dio udalak Mank-i. Auzo-konpostagailuak jarri, mantendu eta kontrolatzeko ardura Mank-en ardura izanen da. Udalak hala erabaki zuen azken bilkuran. Bilduk eta Aralarrek aurkeztu zuten mozioa. NaBaik beste bat aurkeztu zuen zenbait zehaztapen eta 3 puntu bat gehituz. NaBairen mozioko aurreneko bi puntuak Bildu eta Aralarren aldeko bozekin eta NaBairen, PSNren, UPNren eta IUren absentsioarekin onartu ziren. Alderantziz emaitza izan zuen 3 puntuan. "Aurreko akordioak onartu dira boluntariok auzo-konpostagailuak ezartzeko duten egin ahal izateko, herrian hondakinak kudeatzeko ezarritako sistemaz aparte". [+www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

Sakana euskara bidean

Ostegunean mustu zuten dokumentala, Arbizuko festen barruan

Sakana euskara bidean dokumentala, 20 elkarrizketa etnografikoz osatuta dago eta eskualdeko euskalkiak jasotzen ditu. 2011n eta 2012an egin ziren eskualdeko hainbat herriren eta hainbat belaunalditako 22 biztanleri, hizkeraren bilakaera erakusteko asmotan. Sakandarrok bizitzaren aroak, etxea eta familia, bizitza kolektiboa, herria, harremanak, lan eskarmentua, historia, politika edota euskara dituzte

hizpide dokumentalak irauten duen 35 minututan. Hala, aurreko mendeko zati handienaren bizimodua erakusten dute. Arbizukoaren ondoren, momentuz, ez da aurkezpen gehiago aurreikusten.

Euskarabideak aurretik honen moduko beste bi argitalpen egin ditu: Garaioatik Irigira, euskara bidean (Aezkoa, Orreaga, Erro eta Esteribar) testigantzak jasotzen dituen) eta Leitzaldea euskara bidean (Arano, Areso, Goizueta eta Leitza) egindako elkarrizketek osatua). Hirurak daude salgai aleko 10 eurotan, Labrit Multimedia-ko Iruñeko bulegoetan.



Elkarrizketatuak: Irañetako Pedro Ganboa Uharte; Uharte Arakilgo Jose Luis Uharte Ansa; Arruazuko Sole eta M^a Ángeles Ganboa eta Aritz Satrustegi Ganboa; Lakuntzako Rosa Andueza Razkin eta Estibaliz Ruiz Razkin; Ergoienako Tiburcio eta Tomasa Marin, Aitor Navarro Aristorena eta Aitor Mozo Mayo; Lizarragabengoko Jacinto Garmendia Agirre eta Patxi Flores Lazkoz; Arbizuko M^a Josefa Razkin Maiza eta Rufi Berastegi Razkin; Etxarri Aranzko Patxi Maiza Barandalla; Bakaikuko Migel Ondarra Fernandez; Iturmendiako Fermin Gabirondo Agirre eta Victoriano Gabirondo Lanz; Urdiaingo Honorata Zubiria Ostiza eta M^a Elena Irigoien Etxabarri eta Altsasuko Santi Zelaia Urrestarazu.

mueble

ARKUPE

altzariak

%50-eko

DESKONTUAK

PSP 2.355€

ESKAINZA: 1.177€

Solana, 19 ALTSASU 948 563 753 www.mueblesarkupe.com

PSP 2.705€

ESKAINZA: 1.352€

PSP 1.762€

ESKAINZA: 881€

>> Irurtzun

Inasako inbertitzailea atzo etorri zen

Langile ohiekin, Nafarroako Gobernuarekin eta hartzekodunen lehiaketako epailearekin bildu zen. Erredakzioa ixtean jasotakoaren berririk ez genuen

Inasa eskuratzeko interesa duen inbertitzailea atzo Nafarroara etorri zen. Langile ohiekin bildu zen. Fernando Carrionek esan zigunez, "behin betiko proposamena aurkezteko eskatuko diogu". Nafarroako Gobernuo lehendakariorde Lourdes Goikoetxearekin eta hartzekodunen lehiaketako epailearekin ere bildu zen inbertitzailea.

Carrionek esan zigun herenegun Goikoetxearekin bildu zirela. "Proposamen bat badago Nafarroako Gobernu bustiko dela esan zigun", argitu digu langile ohiak. "Esperantza badago". Atzo eta gaur mugimenduak espero dituzte langile ohiak, astelehen edo astearterako bukatzeko.

Bitartean langile ohiak Inasako atera bueltatu dira, baimenarekin oraingoan. Izan ere, makinariaren desmuntatzea gelditzeko 15 eguneko epea ostiralean despiditu zen. Langile ohiak uste dute astelehen bertan itzuli daitezkeela ingelesak makineria desmuntatzea. Baikapek aurreratatu duenez, 15 eguneko atzerapenagatik auzi-ekimenak abiatzea aztertzen ari dira. Langile ohiak, bestalde, zuzendaritzak asteazkenean publiko eginda-

kooharra "ezegonkortzeko asmoz" egin dela ziurtatu dute.

Baikap-en oharra

Inbertitzailearen bistaren bezperan Inasaren jabe den Bavaria Industrial Kapital AGk (Baikap) oharra zabaldu zuen. Baikap-etik ziurtatu dutenez, enpresarako "ustezko inbertitzailea ameskeria hutsa izan da eta langile ohien fede onaren manipulazio saiakera traketsa besterik ez da". Baikap-ek gaineratu duenez, "inbertitzaileak ez du frogatu enpresa biziberritzeko gutxieneko finantza gaitasunik, bere kaudimena erakutsiko luketen besteren erreferentziarik ezta ere". Zuzendaritzaren iritziz, lantegia "berriro zabalteko esperantza faltsuak sortzea arduragabekeria izan da".

Baikap-ek inbertitzailea ikertu du eta horren berri eman dio Iruñeko merkataritza-erloko epaitegiari. Ikerketahorien arabera, pakistandar batek 21.000 franko suitzarrarekin sortutako sozietate bat litzateke inbertitzailea. Baikapen arabera "espekulazio operazio bateko izen-mailegatzaile hutsa izatearen itxuraguztia du". Baikap-ek ziurtatu du hainbatetan eskatu arrenez inbertitzaileak ez kontsultorak ez diola inolako industria planik ezta lantegia biziberritzeko industria



Nafarroako Gobernuari bustitzeko eskatu zieten eta sakandarrei babesa.

Parlamentuak Gobernuari

Nafarroako Parlamentuko bozemaileen batzordeak astelehenean, aho batez, Nafarroako Gobernuari eskatu zion Inasan esku har dezala, egungo jabearen eta inbertitzailearen arteko akordioa errazteko". Horrekin batera, makineriaren salmentagelditzeko eta jabetzaren esku aldaketan bitartekari izateko beharrezkoak diren gestioak egitea eskatu diote Nafarroako Gobernuari. Azkenik, Parlamentuak eskatu dio Nafarroako Gobernuari bere esku

dituen bitarteko guztiak bulkatu dezala Irurtzungen presaren berri-rekitzea, "enpresa proiektu berriari inbertitzaile gisa parte hartzeko aukera barne".

Nafarroako Parlamentuak horrela bere egin zuen Inasako langile ohien ordezkari batek, LABeko Sakanako arduradun Gaizka Uhartek ostiralean aurkeztutako eskaera. "Talde inbertsiogileak bere proposamena egin du jada, baina jabeek ez dute aintzat hartu nahi, makinariaren salmentak ekartzen diendiru-sarrera lehenesten dutelako". Horregatik, Nafarroako

Gobernu inbertsiogile gisa inplikatu dadin eskatu zuten, "modu horretan 115 lanposturen sorrera ahalbideratu dezake". Eskaera horrek, aldi berean, 200 pertsona baino gehiagoren babesa jaso zuen, larunbatean Irurtzunen egindako manifestazioan. UGTK, LABek, Solidarik, ELAK, CGTK eta CCOOK idatzi bateratu batean langile ohien ahalegina nabarmendu eta Baikap enpresa kritikatu zuten. Beste behin ere Baikap-i negoziatzaileak jarrera eskatu zion. Eta irurtzundarren eta sakandarren babesa eskatu zuten.

eta ekonomia gaitasunari buruzko inolako arrastorik eman ere. Hori

egiteko milioi asko behar direla esandu. Baikap-ek ziurtatu du maki-

neriaren salmentako dirua hartzekodunei ordaintzeko izanen dela.

>> Altsasu

Bilera Lazaro Echeverriari



Gaur 122 egun bete ditu Lazaro Echeverriako langileen grebak.

Heldu den ostegunean bilduko dira Lazaro Echeverriako zuzendaritza eta langileak. Lourdes Goikoetxea Nafarroako Gobernuo lehendakari ordearen dei pare baten ondoren hitzartu da aldean arteko bilera. Jakina denez, langileak mugagabeko greban daude. Gaur 122 bete ditu lan uzteak.

Kaleratutako sei langileak berriro hartu edo baldintza duintan kaleratuak izatea eskatzen dute. Eta horrekin batera, langileen lan eta soldata baldintzak blindatuko dituen hitzarmena ere aldarrikatzen ari dira. Haien proposamena greba hasi bezperan

aurkeztu zioten zuzendaritzari baina orain arte ez da hartu-emanik izan.

Protesta ugari

Hasiera batean Altsasu eta Zierdiko lantokien sarreran jarritako kanpamendu banatan egiten zuten protesta. Joan den astetik Iortia kultur guneko plazan daude protestan. Haien egoeraren berri emateko Iruñera oinez joan izan dira. Parlamentuan ere izan ziren. Lan ikuskaritzan ere enpresa salatu dute langileak ordezkari dituztelako, auzia azaroaren 8an aztertzeko da.

>> Olatzagutia

Langileak CPVrekin negoziatzen segitzen dute

Asteartean bildu ziren Cementos Portland Valderrivas (CPV) taldeko zazpi porlandegietako langileen ordezkariak eta taldeko zuzendaritza Madrilen. CPVk aurkeztu duen kontratuak hausteko Enplegu Erregulazio Espedientea (EEE) mahai gainean izan zuten.

UGTKo Javier Lekunberrik jakinarazi digunez, negoziatzen ari dira eta oraindik ez dago ezer zehaztuta. CPVk proposatutako

227 kaleratzeak ahalik eta gehien txikitu nahi dute UGTKoek. Horretarako 55 urtetik gorakoei aurrejubilatzeak eskaintzea proposatu dute. Bestalde, kaleratuendako CPVk gutxieneko kalte-ordaina proposatu du (20 egun lan egindako urta bakoitzeko) eta hori onartezintzat jo du Lekunberrik. "Aurrerapenik ez badago oso egoera zailean egonen gara" esan digu UGTKoak.

ELAKo Aitor Irigoenek negoziatzaioan aurrerabiderik ez dela izan esan digu. Aurreko astean ELAK Olatzagutiako porlandegiaren bideragarritasun plana eta EEE Olatzagutian bertan negoziatzea eskatu zuen eta ez du erantzunik jaso, baina ELAK eskaera berretsi du. Aldeak heldu den astearterako jarri dute hitzordu berria. Espedientearen kontsulta epea hilaren 19an despidutako da.



Cementos Portland Valderrivas (CPV) Olatzagutiko porlandegian aurreikusitako 29 kaleratzeen kontra protesta egiteko deitu zuen ELAK ostiralean lan uztea. Kaleratuak izan daitezkeen langileei elkartasuna adieraztearekin batera, sindikatuak gelditu daitezkeen langileei CPVk ondoren ezarri nahi dizkien erregulazioak, soldata jaitzierak eta bestelakoak ere salatu nahi izan zuten lanuztearekin bat egin zuten langileen %33k.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es



Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin

GUAIXE KOMUNIKAZIOA
948 564 275
Foru plaza 23-1
Altsasu
argi@guaixe.net

Rodolfo Maiza De la Vega Txinbo

Zoazen tokira zoazela, zuretako eramaten zaituen bizitza guretako gelditzen zaigun bizitza

Betiko, Urtziko izkinan

Lagunak



Rodolfo Maiza de la Vega Txinbo

Beti gelditzen zaigu geure baitan galdu ditugun adiskideen zerbait.

Maite ditugunak biziko diragu bizi garen bitartean.

Asun

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



Bidali mezua zorion@guaixe.net-era edo hots egin 948 564 275 telefonora

Iker Borrega Arnedo

Gugandik joan zara, baina zure poza eta alaitasuna gurekin daude.



guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Higiezinak ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

Iruñean pisu bat alokatzen da. NUPtik hiru minutura. Ikasleak bakarrik. Telef: 618- 55 83 92.

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Dorraoko festetan bi taberna alokatzen dira. Festak abuztuaren 15etik 18ra izango dira. Interesatuak dei dezala 626- 59 23 18 telefonora uztailaren 30a baino lehen.

Bakaikuko Bakarrekot-Etxea elkartearen festetan alokatuko da. Enkarterean hasierako prezioa 2.000 € lokal handia eta 1.000 € lokal txikia. Epearen bukaera uztailaren 12an gaueko 21:30ean. Harremanetarako Kontxi 948- 56 26 56.

Ikastaroak

Jolas tailera ingelesez Arbizun. Abuztuaren egunero 11:00etatik 13:00era. Zuk aukeratu zenbat egun eta ordu nahi dituzun. Informazio gehiagorako ikusi www.facebook.com/GoazenEnglishSchool edo email bat bidali goazenenglish@gmail.com

IFESek hainbat ikastaro antolatatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>.

FOREM Navarrak eta CCOOek antolatutako

ikastaroak. Informazio gehiago: 948- 13 66 88 eta <http://www.foremnavarra.org/cursos/autonomico.php>.

Lehiaketak

"Pedro de Atarrabia" XXIV literatur sariketa. Atarrabiako Udalak antolatuta, idazlanak aurkezteko epea 2013ko abuztuaren 16an.

Etxarri Aranazko festetako kartel lehiaketa 2013. Kategoriak: 12 urtetik 16 urtera eta 16 urtetik gorakoak. Noiz arte: azken eguna 2013ko uztailaren 5 ostirala arte. Informazio gehiago: 948- 46 09 30 - 948- 46 00 04, kultura@etxarriaranatz.com.

Oharrak

Odol emaleak. Uztailaren 23an, arratsaldean, Arbizun eta Lakuntzan.

Euskara irakasleen topaketa. Sakanako Gau Eskoletan eta AEKn aritutako irakasleak irailaren 2lean, larunbatarekin, bazkaltzera bilduko dira. Izena emateko eta informaziorako hots egin 646-04 00 54 telefonora.

Haurren eritimoak errespetatzen dituen eskola libreanahi baduzu. Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza

euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Urdiaingo eskolan negutegi bat behar dugu, hots egin telefono honetara 948- 46 83 45.

Solasaldiak nederlanderaz. Informazio gehiagorako larrezabaldk@inigoaritz.com

Nafarroa Oinez. Lagundu nahi bagaituzu, honako esteka honetan klik egin eta izena eman ezazu. Eskerrik asko! <https://docs.google.com/spreadsheets/embeddedform?formkey=dEZwZOZidV6RUVTdHFjMkivR1c4TCc6MQ>.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Pikuxar Mus Txapelketa azkarra. Hilabetearen azken ostiralean. Gaueko 22:00etan. Apuntatu ordu bat lehenago. Partidak 2 txikotara, eliminatza. www.blogak.com/irurtzuneuskaraz/pikuxar-mus-txapelketa-azkarra. 5 € bikoteko. Saria bi gazta.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosfosofinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosfosofinaarreguilagunak@gmail.com.

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkarrekin denda. Sakanan produktu ekologikoen zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarrik eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, galletak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezta, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehasak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldetako tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora era-

JAIOTZAK

• **Garoa Beloki Sanchez**, ekainaren 20an Etxarri Aranatzan.

EZKONTZAK

• **Juan Jesus Palomino Mateo eta Naroa Iraurgi Arrieta**, uztailaren 2an Etxarri Aranatzan.

HERIOTZAK

• **Bernardino Vazquez Boleira**, ekainaren 26an Lakuntzan.
• **Mikaela Lizarraga Razkin**, ekainaren 26an Altsasun.
• **Francisco Imaz Urzelai**, uztailaren 1ean Olaztin.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

man: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Gazteendako sexualitate aholkularitza.

Hileko lehen asteartean, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gunea (Burunda kaletik sartuta. 948 564 785 telefonoa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Saskibaloia

Naiara Diezen UNB saskibaloitaldeari agur

BABESLE FALTAGATIK UNB SASKIBALOI TALDEAREN IBILBIDEA BERTAN BEHERA UTZI DUTE

Union Navarra Basket "UNB" Iruñeko saskibaloitaldeak agur esan dio bere ibilbideari, emakumezkoen maila gorenean zegoela, eta sekulako denboraldia egin eta gero. Arrazoa diru falta da. Obenasa enpresa 6 urtez UNB taldearen babesle nagusia izan da, baina enpresak ezin izan du proiektua babesten jarraitu.

Nafarroako Gobernuak ez Iruñeko Udalak ez diete ziurtatu datoren denboraldian diru-laguntzarik jasoko duten eta hala bada zein izango den kopurua. Ezjakintasun horren aurrean, proiektua uztea erabaki dute "jarraitzea arduragabekeria litzatekeelako. Argi dugu erakundeek hausnartu egin behar dutela diru laguntzak emateko sistemaren inguruan, guri gertatutakoa berriro gerta ez dadin" azpimarratu dute.

Pena handiarekin hartutako erabakia da. "Ilusio handiz lanean aritu garen 6 urte izan dira. Kirol lorpenez harago, gure kirola sustatu dugu Nafarroan, eta gure kirolaren balioak helarazi: berdintasuna eta errespetua. Horregatik, oso harro gaude" azaldu dute.

UNB Obenasa jokalaria izan da, 4 denboralditan, Naiara Diez altsasuarra (29-01-1987, 1,78 m). Eskolta eta hegalmoduan jokatu du.

"Oso gogorra da taldeak pertsiana itxi behar izatea"

Naiara Diaz
Saskibaloitokalaria
Nola hartu duzu UNB taldearen desagerpena?

Notizia ez da batere ona. Bagenekien gauzak ez zihoazela ongi, baina proiektua bertan behera geratu dela jakiteak mina ematen du. Krisia nabaritzen da, eta emakumezkoen kiroletan gehiago.

Aurten Liga Femeninan sekulako denboraldia egin eta gero esan behar du taldeak agur.

Seigarren postuan sailkatu gara eta play offetarako sailkatuz, ia finalerdietan sartu gara. Taldekideen harremana oso ona da eta denboraldi bikaina egin dugu. Oso gogorra da halako egoera batean taldeak pertsiana itxi behar izatea. Kantxan irabazi duguna kendu digute dirua ez dagoelako. Instituzioek dirurik emango duten jakin gabe eta babesleak ez badira ateratzen... Krisia ere kiroletara heldu dela ikusten dugu. Baina aurrera segitu behar dugu, beste



taldeak bilatu.

Saskibaloian jarraitu nahiko zenuke?

Bai, nire asmoa saskibaloian jarraitzea da. Ez dakit non edo zein taldetan baina jarraitzea. Zaila izango da, krisiak talde guztiei eragiten dielako, baina hurrengo denboraldian 1 edo 2. mailan jokatzeko espero dut. Orain mugitzen ari gara, eta ikusiko dugu non bukatzen dugun.

Bitartean ikasketekin jarraitzen duzu?

Maisutza bukatu dut eta orain Madrilan ikasketekin lotutako kurtsoak eta beste egiten ari naiz. Beti zerbait egiten...

Zorte on!
Eskerrik asko.

Herri kirolak

Sanferminek eskaintza zabala ekarriko dute

Sakandarrak, aizkoran, trontzan eta proba konbinatuetan ariko dira, eguerdiro, 12:00etan

Sanfermingo etxafiguarekin batera, munduko festa ezagunetako ekitaldiak abiatuko dira bihar. Eta tartean txoko berezia izaten dute herri kirolak. Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatuta, uztailearen 8tik aurrera, eguerdiro, izanen da zertaz gozatu Iruñeko Foruen plazan. Jakina, tartean kirolari sakandarrak lehiatuko dira.

Antolatutako txapelketetan eta erakustaldietan arituko diren herri kirolarien zerrenda oraindik ez du aurkeztu federazioak, baina asteazkenean Nafarroako 3. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa dago jokoan, eta tartean lehiatuko dira sakandarrak. Ostegunean kadeteen mailako Nafarroako Trontza Txapelketa erabakiko da, eta espero dezagun bertan ere kirolari sakandarrak aritzea. Egun berean kimuen mailako herri kirol proba konbinatuaren erakustaldia burutuko da eta ziurrenik ere bertan sakandarrak egonen direla.

Kiroldegia
Sociedad Deportivako batzarra gaur Gure Etxean

Gaur, garilak 5, Sociedad Deportiva Alsasua Gure Etxean egingen den ohiko batzar orokorrera deitu dituzte: aurreko batzarreko akta, aurtengo diru kontuak, bazkideen kuota eta urteko ekitaldiak onartzea, urteko kirol eta aurrekontuen balantzea egitea eta galde erreguen txanda.

Pilota
Joanes Bakaikoak eta Jon Gorritik ezin izan zuten Herrien Arteko Txapelketako txapela jantzi

Iruñeko Oberena kluba eta Doneztebeko Erreka kluba sailkatu ziren Herrien Arteko Pilota Txapelketako finalerako. Doneztebeko Errekarrekin bi sakandar lehiatu ziren Joanes Bakaikoak eta Jon Gorriti uharterra seniorretan. Kimuetan Oberenakoak gailendu ziren, 18-5, eta haurretan Doneztebeko Joanes Bakaikoak eta Ruben Medinak 6 tantotan utzi zituzten Oberenako Aritz Jamar eta Javi Andueza. Seniorretan Oberenako Iñigo Diaz eta Iñigo Etxamendi 22-10 nagusitu zitzaizkien Doneztebeko Gaizka Bendoirori eta Jon Gorritiri. Oberenak txapelketa irabazi zuen.

Pilota

Zabaleta Xalarekin eta Zubieta Jaunarenarekin Sanfermin Torneoan



Binakakotik aldaketak datoz. Zabaletak Xala du biko eta Zubietak Jaunarena.

Aspek eta Asegarcek antolatuta, Sanferminetako Binakako Torneoan 6 bikote ariko dira, bi multzotan banatuta: A multzoan Olaiola II.a-Beroiz, Bengoetxea VI.a-Begino eta Xala-Zabaleta daude, eta B multzoan Urrutikoetxea-Albisu, Jaunarena-Zubieta Irujo-Barriola. Hortaz, bi ordezkari sakandar ditugu: Jose Jabier Zabaleta atzelari etxarrendarra, Xalarekin ariko dena; eta Aitor

Zubieta atzelari etxarriarra, Jaunarenarekin bikotea osatuko duena. Sorpresa moduan, 1999 urteko torneoan aritu den Titin ez da aurten ariko. Bikoteak oso ondo orekatuta daude eta oso torneo lehiatua espero da.

Multzo bakoitzean denek elkarren aurka jokatu dute, uztailearen 6an hasita, eta talde bakoitzeko onenek jokatu dute uztailearen 14ko finala.

Sanfermin Torneoa

Xala-Zabaleta / Bengoetxea VI.a-Begino (ostiralean, 17:00etan) Galtzaileek eta irabazleek Olaiola II.a-Beroiz izanen dituzte aurkari uztailearen 9an eta uztailearen 11n Urrutikoetxea-Albisu / Jaunarena-Zubieta (uztailearen 8an, 22:15ean) Galtzaileek eta irabazleek Irujo-Barriola izanen dituzte aurkari uztailearen 10ean eta uztailearen 12an.

Ezkurdia ardoaren desafioan Uztailearen 13an ardoaren desafioa jokatu da. Lau t'erdian Joseba Ezkurdia arbizuarrak Arretxe II.a izango du aurkari, Retegi Bi eta Idoate buruz buru lehiatuko dira eta Titin III.ak eta Merino II.ak Olaiola II edo Bengoetxea VI.a eta Ibai Zabala izango dituzte aurkari.

Pilota

OLAZTIKO XLII. SAN MIGEL PILOTA TXAPELKETA
Ongayren aukera

Olaztiko San Migel elkarteak eta Sute-gik antolatutako pilota txapelketaren barruan jardunaldi polita jokatu da gaur Olaztiko pilotalekuan. Afizionatuaren finalerdietako partidagoko jokoan, Ongay satrustegiarrak Landiribarrekin osatuko du bikoa, Loban eta Tabarren kontra egiteko. Easakandarra finalerako sailkatzen den.

Asteburuko jardunaldia

Gaur, ostiralean, 20:30ean
2.maila: Fot-Urko / Peixel-Garziandia
2.maila: Javi-Aies / Aitor-Eneko
Afizionatuak (finalerdia): Loban-Tabar / Ongai-Landiribar

Areto futbola
40 jokalaria Xotaren hautaketa probetan

Asteburuan Xota areto futbol taldeak jokalaria hautatzeko probak egin zituen Iruñeko Anaitasuna pabilioian. 40 jokalaria baino gehiago aurkeztu ziren probetara, Euskal Herriatik, Asturiasetik, Errioxatik, Andaluziatik edo Kataluniatik etorritakoak. Imanol Arregi entrenatzaileak eta Migel Hernandezek gidatu zituzten saioak. Aipatzekoa da egun Xotako jokalaria diren Carlitos edo Victor halako probetatik hautatu zituztela.

Mendi txirrindularitza
Sakandarrak Extreme Bardeetan

1.352 bikerrek hartu zuten parte Argedasetik aterata Bardeetan barrena antolatutako Extreme Bardeak lasterketan (104 km), tartean hainbat sakandarrek. Horietatik 1.202 iritsi ziren helmugara. Hautsa izan zen protagonista.

Irristaketa



Fernandez urrezkoarekin. UTZITAKOIA

Urrezko Ioseba Fernandez

Europako Irristaketa Txapelketako 300 metroko erlojupekoan onena izan da iturmendierra

Holandan jokatzeko ari da Abiadurako Irristaketako Europako Txapelketa. 300 metroko erlojupekoan urrezko domina kolporatu du Ioseba Fernandez irristalari iturmendiarrak (24,581), Darren de Souza frantziarraren (24,607) eta Ronald Mulder holandarraren aurretik (24,703) sailkatuta. Zorionak!!!

Txirrindularitza

Asteburuan Pirinioak

Gaur, ostiralean, trantsizioko etapa jokatu etagero, larunbatean eta igandean helduko da Pirinioen txanda Frantziako Tourrean. Horrela, tropeleko izarren lehen erakustaldietara helduko gara. Jakina, makina bat zale euskaldunen bilgune izango dira Pirinioak.

Gogoratu Movistarreko Imanol Erbiti txirrindularia dela, aurtun, gure ordezkari bakarra Tourrean; Jose Luis Arrieta zuzendari uhartearen esanetara ariko da lanean Hiriberriko. Valverdeliderra laguntzea izangoda bere egiteko nagusia. Bestalde, Euskaltel taldean Oskar Guerrero dabil zuzendari lanetan.

Sega

Mixelena 4.a Euskal Herriko Segaligan

Igandean Euskal Herriko Nazioartekoerako Segaligan 3. eta azken saioa jokatu zen. Igor Esnaola izan zen jaun eta jabe. Azkar eta txukun ebaki zuen (2:37). Atzetik lehia oso estua izan zuten Altsasun bizi den Bixente Mixelena segalari oiartzuarrak eta Jexumari Goenagak, baina azkenean errezildarran agositu zen, eta Mixelena 3.a izan zen. Aurreko bi jardunaldietan garai-ile izan zen Joxe Gabirondo 4.a sailkatu zen. Hala ere, aurreko bi garai-penei esker Gabirondok jantzi zuen txapela. Bere atzetik Esnaola, Goenaga eta Mixelena sailkatu dira.

Triatloia

Sakandarrak 28. Donostiako Nazioarteko Triatloian

800 triatleta baino gehiagok parte hartu zuten 28. Donostiako Nazioarteko Triatloia-Onditiz Memorialean. Francesc Godoy izan zen azkarrena (1:58:06). Sakana Triatloi Taldeko Alberto Martinez de Lagran 336.a izan zen (2:32:38) eta Juan-txo Azurmendi 342.a (2:32:53).

Mendi lasterketak

Unzurrunzaga eta Beraza bikain Camillen

ETXARRIARRA 6.A IZAN ZEN ETA UHARTEARRA 7.A

Sakandarrak IX. Camille Extremen (31,6 km):

1.	Abderrahim El Qayed	3:13:59
6.	Ander Unzurrunzaga	3:28:09
7.	Jose Luis Beraza	3:28:10
14.	Jose Javier Maiza	3:36:37
28.	Juanjo Goikoetxea	3:46:32
30.	Evaristo Noveleta	3:47:21
39.	Aritz Munarriz	3:52:41
81.	Alberto Razkin	4:07:49
95.	Patxi Rubio	4:15:02
168.	Jabi Arakama	4:43:04
181.	Andoni Aiestaran	4:47:27
216.	Jose Leitza	4:57:04
248.	Fernando Mazkiaran	5:09:08
291.	Jokin Garate	5:44:24
293.	Javier Bados	5:44:29

331 korrikalarik hartu zuten irteera Izaban jokatu IX. Camille-Extremen (31,6 km), eta horietatik 308 heldu ziren helmugara.

Berez gogorra den proba are gehiagoratu zuten tenperatura handiek. Sestaoko Abderrahim El Qayedek sekulako erakustaldia eman zuen (3:13:59) eta ia 2 minutuko tartea atera zion Manttaleko Joseba Larralderi (3:15:42). Hasieran Joseba Larralde egon zen buruan, Ezkaurreko gainean (2.047 m) azkarrena izanik, baina Ezkaurreko jaitsiera hasi bezain pronto El Qayed distantziak txikitzen hasi eta proba irabazi zuen. Emakumezkoetan Izaskun Zubizarreta izan zen azkarrena (3:13:59).

Lehen beteranoa

Aipatzekoa da sakandarrek lan



Unzurrunzaga ura edaten, Ezkaurre gainean. UTZITAKOIA

bikaina egin zutela. Etxarri Aranzko Ander Unzurrunzaga 6.a sailkatu zen (3:28:09) eta Jose Luis Beraza uhartearra 7.a (3:28:10).

Unzurrunzaga probako lehen beteranoa izan zen. Gainontzeko sakandarrek ere lan txukuna egin zuten.

Futbola

Aldaketak Lagun Artean

Iosu Dominguez entrenatzailea Osasunako emakumeen taldea entrenatzen ari da, eta Osasunako emakumeak entrenatzen zituen Jose Luis Satrustegi Lakuntzako taldeko entrenatzaile berria izango da. Ion Mendieta Laguneko jokalaria Osasunako kadeteen 2. entrenatzaile izango da.

Futboleko mugimenduak daude, eta orainoan Lagun Arteari tokatu zaio. Lakuntzako taldean oso kontentuz zeuden Josu Dominguez entrenatzaileak egindako lanarekin -lakuntzarrek 3. mailari eustea lortu zuten- eta beste denboraldi baterako berritu zioten kontratua. Baina aldaketak etorri dira. Osasun goitik beherako aldaketak egin dituzte eta horren eragina Lakuntzan nabaritu da. Enrique Martin Monreal Osasunako futbol harrobiaren ardura berriak goitik behera eraldatu du organigrama. Horrela, Iosu Dominguezi emakumeen futbol taldearen ardura bere gain hartzea proposatu zion, eta Dominguezek emakumeen maila nazionalean dabilen taldearen ardura hartzea onartu du.



2012-2013ko argazkia ez da errepikatuko, aldaketak baitaude.

Osasuna efektua

Lagun Arteko Jesus Mari Goikoetxeak azaldu digunez, ulertzekoa da Dominguezek eskaintza onartzea, "Osasunak beti beste proiektio bat duelako". Eta, dagoeneko, aurkitu dute Dominguezen ordekoa: orain arte Osasunako emakumezkoen entrenatzailea zen Jose Luis Satrustegi, hain zuzen. Beraz, nolabaiteko trukea egon da. "Jose Luis aspalditik ezagutzen dugu eta bere etorrerarekin kontentuz gaude."

Bi aldeak ados gaude trukaketa berezi honekin. Satrustegi 7 urte inguru izan zen Etxarriko entrenatzaile, Altsasun ere Claverrekin batera egon zen lanean eta Txantrean beste urte pare bat. Eskarmen-tu handiko entrenatzaile da eta kontentuz gaude."

Lagun Arteak uztailearen 17an hasiko ditu entrenamenduak. Abuztuaren 2an Txantrearen kontrako lagun arteko partida jokatu du Lakuntzan.

Teknikazio zentroa Altsasun

Osasunako harrobiko ardura Enrique Martinek azaldu duenez, Osasunak bi teknikazio zentro berri jarriko ditu, Donezteben eta Altsasun. Horrela, bertako jokalariei segimendu gehiago egingo zaie. Bestalde, Taxo-areko lan egiteko metodologian aldaketak egingo dituzte. Osasunako harrobiko talde guztietan praktikan jarriko duten futbol eskema 4-4-2 izango da.

Ion Mendieta Osasunako kadeteekin

Osasunako futbol harrobiko aldaketek beste ondorio bat izan dute Lagun Artean. Ion Mendieta Laguneko jokalaria Osasunako 2. mailako kadeteen prestatzaile fisiko berria izango da, bigarren entrenatzaile, Piotrek Urban entrenatzailearen alboan lan eginez. Uharte-arrak Laguneko futbolari izaten jarraituko du, eta bi egiteko txandakatuko ditu. "Iaz Osasunako emakumezkoen prestatzaile izan zen, eta aurtun kadeteetara pasako da. Baina Lagun Artean jokatzeko jarraituko du" aipatu digu Goikoetxeak.

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

**Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea**

Irailaren 17a baino lehen bidali

Udako G argazki lehiaketa

>> Saria: KATE informatikak eskainitako webcam-a, mikrofonoa eta aurikularrak

ADI, oinarri berriak:

Argazki digitalak bakarrik onartuko dira eta gutxienez 1.800x1.200 pixel eta jpg formatua izatea. Argazkiak Sakana hartutakoak izan behar dira. Argazkiak bakoitzak gehienez argazki bat aurkeztu dezake eta ondoko datuak jarri behar dira: egilearen izena-abizenak, telefonoa, e-posta eta argazkia non hartu den. Blerrik Fundazioak beretako gordetzen du jasotako lanak publikatzeko eskubidea. Lehiaketa honetako parte-hartzaileak, bidalitako lanaren jabe den neurrian, lanak erabiltzen, jendaurrean erreproduzitzen eta jakinarazten uzten dio Blerrik Fundazioari, euskarri inprimatuan, Interneten edo ezagutzen den beste edozein modutan. Lanak irailaren 17a baino lehen aurkeztu behar dira maketazioa@guaixe.net helbidean. Argazkiak www.guaixe.net webgunean jarriko dira ikusgai.

Frontenisa

Guztiak txapeldun

LEHEN MAILAN MIREIA ETA ELENA GAIENDU ZITZAIEN YANIRA ARISTORENA ETXARRIARRARI ETA MAITERI.

2. MAILAKO TXAPELA ETXARRI ARANATZEN GERATU ZEN, ANDREA-IZARREK ANE-UXUERI IRABAZI ETA GERO

Emakumeen Frontenis Txapelketako finalak

3. eta 4. postuen finalak, Etxarri Aranatzen

2. maila: Uxue-Irati 25 / Maider-Leonor 21
1. maila: Edurne-Vanesa 25 / Ruth-Yolanda 8

Final handiak, Olaztin

2. maila: Ane-Uxue 21 / Andrea-Izar 25
1. maila: Yanira-Maite 18 / Mireia-Elena 25

Ostiralean VI. Sakanako Emakumeen Frontenis Txapelketako finalak jokatu ziren. Etxarri Aranatzek 3. eta 4. postuetako finalak hartu zituen, eta Olaztin, aldiz, final

handiak jokatu ziren. Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatu du aipatu txapelketa, Etxarri Aranatzko Gure Pilotaklubaren eta Olaztinako Pala arduradunen laguntzarekin, eta 18 biko lehiatu dira guztira, 9 lehen mailan, eta beste horrenbeste bigarren mailan.

Final handian, 2. mailan, oso lehia estuan Gure Pilotako Andrea eta Izar etxarriarrak 25-21 irabazi zieten Ane eta Uxueri. Eta 1. mailako finalean Mireia eta Elena 25-



Goi mailako finalez gozatzeko aukera izan zuten ikusleek. Argazkian, finalistak eta arduradunak. UTZITAKOIA

18 gailendu zitzairen Yanira Aristorena etxarriarrari eta Maite Ruiz de Larramendiri. Garaileek aipatu zuten, "Yaniraren eta Maitearen kontra urte hauetan jokatu

duten partidarik onena" izan zen ostiralekoa. Izan ere, oso partida ona, kalitate handikoa eta lehiatua izan zen. Ikusleak ere gustura egon ziren eta emozio handiz bizi zituz-

ten finalak. Bukaeran finalistek Sakanako produktuekin osatutako lote ederrak jaso zituzten opari, Olaztin Patricia Fernandez zinegotziaren eskutik.

Futbola

Txapela Isotoposendako

IZURDIAGAKO FUTBOL 8 TXAPELKETAKO FINALEAN IRURTZUNGO TALDEA NAGUSITU ZITZAION ITXASPERRI-LACTURALERI



Finala jokatu ondoren sari banaketa izan zen eta talde argazkia atera zuten finalistek. MIGEL ANGEL LAPLANA

Izurdiago Futbol 8 Txapelketa

Finala: Isotopos 3 - Itxasperi-Lacturale 2

Larunbatean Izurdiago Futbol 8 Txapelketako finala jokatu zen. Isotopos taldeak -gehienbat irur-

tzundarrez baina baita Izurdiago, Gulina, Satrustegi, Lekunberri eta Iberoko jokalariez osatutako -eta Itxasperi-Lacturalek -gehienbat Sanduzelako jokalariez osatutako -lortu zuten finalerako txarte-

la. Finala oso lehiatua izan zen, kalitate handikoa. Itxasperi izan zen aurreratu zena baina Isotoposekoak bina berdintzea lortu zuten.

Itxasperrikoek soilik bi ordezkari jokalarieraman zituzten eta

hori nabaritu zen luzapenean. Horrela, garaipena eta txapela Sakanan geratu ziren, Isotoposek irabazi baitzuen.

Finala baino lehen eskolen mailako lagunarteko partida jokatu zuten Lekunberriko Beti Kozkorrek eta Burlatako Ermitaberrik. Hiruna berdindu zuten. Bukaeran guztiendako freskagarriak eta merienda ederra izan zen. Sari ematean Arakilgo alkate Ruben Goñik antolatzaileek eta babesleek egindako lana eskertu zuen. Jakina, arbitroen lana ere eskertu zuen, eta, horrela, Astraingo Cemborain arbitroak gazta eta Lacturale lotea jaso zituen opari.

Jarraipena airean

Antolakuntzatik adierazi digutenez, txapelketaren jarraipena airean dago. "Txapelketa antolatzearen helburua gure inguruko gazteriarri zerbait egiteko eta ongi pasatzeko aukerak ematea da, baina gutxi batzuen portaera baldarrak guztia airean jarri dute" adierazi dute antolakuntzatik.

Sariak:

Pitxitxia: Rajatablako Xabier Etxarri (2 pertsonarendako afora Irurtzongo Plazaola hotelean + Lacturale lotea).

Gol gutxien jaso duen taldea: Guan-Larraz (trofeoa + Lacturale lotea).

Gol gehien sartu dituen taldea: Isotopos (trofeoa + Lacturale lotea).

Jokalarri onena: Itxasperriko Pablo Pedreño (trofeoa + Lacturale lotea).

Atezain onena: Itxasperriko Roberto Alonso (trofeoa + Lacturale lotea).

3. talde onena: Guan-Larraz (150 euro + trofeoa + Lacturale lotea).

Txapeldunordea: Itxasperi-Lacturale (250 euro + trofeoa + Lacturale lotea).

Txapelduna: Isotopos (300 euro + trofeoa + Lacturale lotea).

Kiroltasunari saria: Rajatabla (400 euro + Lacturale lotea + aforarirako gonbidapena).

Bazkide zozketa

Garagarrileko sarituak:

Gorka Mintegi Mazorriaga

Ekain berri kobazuloetarako sarrera + 612€ liburua

Pedro Mari Irigoien Galarza

Ekain berri kobazuloetarako sarrera + 612€ liburua

Joakina Zubiria Galartza

Urbasa abentura parkerako sarrera + 612€ liburua

Oier Lakuntza Irigoien

Urbasa abentura parkerako sarrera + 612€ liburua

GARILEKO SARIAK:

1- ZALDI IBILALDIA 2 LAGUNENTZAT ETA EKAIN BERRIRAKO ETA AQUARIUMERAKO SARRERA BANA
2- EKAIN BERRIRAKO ETA AQUARIUMERAKO SARRERA BANA ETA JUAN BILBAOREN CDA

3- ESNE BEHIEN INTERPRETAZIO ZENTRURAKO ETA AQUARIUMERAKO SARRERA BANA ETA JUAN BILBAOREN CDA
4- ESNE BEHIEN INTERPRETAZIO ZENTRURAKO ETA AQUARIUMERAKO SARRERA BANA ETA JUAN BILBAOREN CDALIBURUA



Non erabili Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en zerrrenda osoa ikusgai

ANTSOTENEA

IRURTZUN

%10eko deskontua.

ITXESI JATETXEA

UHARTE ARAKIL

Otorduetan kafea edo txupittoa doan.

IZARA

ALTSASU

%10eko deskontua etxeko jantzi eta osagarrietan eta %5eko deskontua gortina eta enkarguetan (eskaintza ez

metagarria).

ARKUPE

ALTSASU

Erakuslehioen aldaketagatik %50eko deskontuetatik gora.

TXIKITXO

ALTSASU

60 €tik gorako erosketetan, %10eko deskontu-txartel bat hurrengo erosketan erabilitzeko.

NAMASTE YOGA

ALTSASU

www.namastecentro.es-en galdetu eskaintzen berri.

TIPI TAPA OINETAKOAK

ALTSASU

60€ko erosketagatik %10eko deskontua (eskaintza ez metagarria).

VIZU ILEAPAINDEGIA

ITURMENDI

30€ko gastuarekin %10eko deskontua.

Etxarri Aranazko abesbatza lehian

Bihar eta etzi San Vicente de la Barquerako XLVI. Marinel Abestien lehiaketan parte hartuko du

Kantabriako lehiaketak bi zati ditu. Larunbatean, abesbatza guztiek Antonio Nogueraen *Tu mano* kantatu beharko dute. Horrekin batera, Alejandro Yagüeren *Dosolas* marinela abestia, eta korallak aukeratutako *Einojuhani Rautavaara Suite de Lorca* kantatuko ditu Etxarri Aranazko abesbatzak bihar. Balorazioa egingen du epaimahaiak eta horren arabera banatuko ditu sariak.

Igandean, berriz, ikusleen saria emanen da. Horretarako, abesbatza guztiek nahi dituzten bi abesti kantatuko dituzte. Etxarriarrek James Erb-ek moldatutako *Shenandoah* eta Franz Friedrich Richard Geneeren *Ensalada Italiana* abestuko dute.

Itzulera

Sei urteren bueltan Etxarri Aranazko abesbatza lehiaketa batean neurtuko da. Abesbatzako batzorde teknikoak lehiaketa batera joatea buruan zuen eta Kantabriakoa, datengatik, egozia zela adostu zuen. Lehiaketarako prestatu beharra pizgarria izan da taldearendako. Izan ere, abesbatza indartzeko aritutako-



ei laguntza eskatu diete eta erantzunarekin poz-ozik daude; guraso izan direnak edo denbora faltagatik korala utzi zutenak berriro ere kantatzen ari baitira. Beteranoenek gogoan dute apar-

teko eszenatoki hartan 1995ean txapela eskuratu zutela.

Etxarri Aranazko abesbatzarekin batera beste bost abesbatza ariko dira Kantabriako lehiaketan: Kromatica (Gudalajarakoa), Coro

Castillo de Gauzon (Piedra Blanca, Asturias), Coral de Capilla de la Divina Comedia de Bembibre (Leon), Obradoro vocal A vila (Ponteareas, Pontevedra) eta Madrilgo Ganbera Abesbatza.

Gure erlazioei begirada antzeztua



Gaur, ostirala, 22:30ean Olatzagutiko Maisuena gaztetxean.

Teatro Que Madura konpainiak *Como como poco me descoco poco* antzeztuko du gaur. Bi aktore, Josune Monton eta Laura Lopez, izanen dira eszenatokian. Laguntasuna da antzeztanaren gaia. Hainbat ideiak zehazten dute nolakoa izan behar duen laguntasunak; zein diren eskubideak eta betebeharrak. Baina esperetokoa ez jasotzean zerbait desagiten da. Baina guztia ahazten da eta laguntasunak aurrera jarraitzen du.

Idea hori garatzeko, antzez-

leak haien barren-barrenetik ariko dira egunerokotasunean erabiltzen ditugun mekanismo inkontziente eta automatismoen gainean. Ondorioa: "estriptis mental zintzoa, gordina, karga dramatiko apur batekin, zeinetan jendeak asko barre egiten duen identifikazioa berehalakoa delako".

Que Madura Teatro

Konpainia 2009ko udazkenean sortu zuten bi antzezleek. Ordurako eszenatokitik eskarmentu handia zuten. Haien sortu eta zuzentzen dute antzezlana Belen Nevadorenkin batera.

Gobernuak 192.352 euroko laguntza eman dio Nafarroako Antzoki Sareari

Kultura Departamentuak Nafarroako Antzoki Sarea elkartearen 2013-2015 aldiko ohiko jardueren finantzatzeko diru-laguntza eman du. (52.352 eurten eta 70.000na euro hurrengobi urteetan). Hitzarmenak arte eszenikoen eskaintza hobetu eta programazioa egonkortzeko balioko du. Elkarteak aurten koordinatzailea kontratatuko du eta haien programazioaren berri emanen duen web orria sortuko du. Internet bidezko sarrera salmenta sistema ezartzea ere aztertuko du. Elkarteak Nafarroako 26 udalek osatzen dute, tartean Irurtzun, Etxarri Aranatz, Altsasu eta Olatzagutiak.

Badugu udaberriko argazkia

Sakanako Udaberriko Argazki Lehiaketa antolatu zuen Guaixeko astekariak. Aurkeztutako lanak baloratu ondoren, epaimahaiak Josu Dorronsoro Artolarisariarekin erabakizuten. Sakan Informatika etxe arakildarreko Iker Navasen eskutik liburu elektronikoko bat eta haren azala jaso zituen Dorronsorok. Altsasuko Errekalde dermionerle bati egindako argazkiak eman dio saria. Aurretik udazkeneko lehiaketa irabazia du etxarriarrek.

Epaimahaiak bi akzesit ere eman zituen. Bata Idoia Artieda Larrazarendako izan zen. AEK-ko ikasleekin Altsasun ibilaldi botanikoa egin zuteneko argazki bat



aurkeztu zuen lehiaketara. Rodolfo Balda Irurtzunek, bestalde, Irurtzunen egindako argazki batega-

tik epaileen aipamena jaso zuten. Biek ere Dora Salazarren liburua bana jaso dute opari gisa.



Guaixen udako argazkiaren bila

Urtaroaldaketa batekin batera, Guaixeko astekariak lehiaketa berria jarri du martxan. Oraingoan Sakan eta uda izanen dira lehiaketako gaiak. Parte-hartzaileek argazki bakarra aurkeztu dezakete lehiaketara. maketazioa@guaixe.nete-

postara bidali beharko dira argazkiak irailaren 17aren aurretik. Argazkiaren izenburuarekin batera, non eginga dagoen eta harremantarako telefonoa eman beharko da. Sakanako uda hobekien izenduen argazkigileak Irurtzungo Kate Informatikaren webcam-a, mikrofona eta aurikularra eskuratuko ditu.

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 5%	euria: 5%	euria: 5%	euria: 5%	euria: 5%	euria: 10%	euria: 15%
Min: 13 Max: 24	Min: 13 Max: 28	Min: 13 Max: 27	Min: 14 Max: 28	Min: 16 Max: 29	Min: 16 Max: 28	Min: 16 Max: 26

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	31	9	0
Etxarri A.	29.4	6.7	0.1
Altsasu	28	7	0
Aralar	22.2	5.6	0.6
Urbasa	26	8	0

: ilargiaren aldia >>

ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
8	16	22	29

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA

GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253

Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI

Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

www.ventanasegoki.com

Guaixe erakusleho lehiaketa

Non daude aste honetako Guaixearen azalak?

Non egon dira garagarrileko Guaixearen azalak?

422. Guaixa: Mari Xele liburudenda (Etxarri) eta Julene kortsetegia (Altsasu).

423. Guaixa: Etxarri Komertziala (Etxarri) eta Asensio (Altsasu).

424. Guaixa: Antsotenea (Irurtzun) eta ML (Altsasu).

425. Guaixa: Sakana Optika (Altsasu) eta Zelandi kiroldegia (Altsasu).

Garagarrileko saritua: Loly Asensio

Hilabete akaberan gutxienez Guaixa egon den 3 komertzioaren izena bidali

zorion@guaixe.net helbidera edo Bierriken bulegora ekarri

Foru plaza 23, Altsasu

Saria: Komertzioek emandako produktuez osatutako lotea

>> 11

galdera

Idoia Hualde eta Sebas Goikoetxea

Errotain zaldi ibilaldiak, Urdiain

Testua: Maider Betelu Ganboa

Kolore eta musika guztietarako kartelak

Munduko Musikak Sakanan Bierriken alde

2012-2013

Eskerrak beroenak guztioi

Guaixe

KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.net

diseinua & inprimatzea

Idoia Hualde eta Sebas Goikoetxea

Errotain zaldi ibilaldiak, Urdiain

Testua: Maider Betelu Ganboa

Elkarrizketa osorik: www.guaixe.net-en.

1. Errotain, zaldi ibilaldiak zerbitzua sortu duzue, Urdiainen. Betidanik zaldiak izan ditugu. Lanik gabe gaudenez, guri zaldiz ibiltzea horrenbeste gustatzen zaigula aprobetxatuz eta hemengo mendi ederrak gertu ditugunez, guztia uztartu dugu eta Errotain, zaldi ibilaldiak enpresa sortu dugu, Sebasen gurasoenean. Errota dagoen lekuari Errotain deitzen diote Urdiainen, eta izen hori hartu dugu.

2. Zaldiak Errotain dituzue? Zaldiak ondoko larreetan izaten ditugu, aske. Badute ukuilua, nahi izanez gero, baina gurea ez da hipika bat. Libre egongo dira zaldiak, eta ibilbide bat egin behar dugun hartuko ditugu. Bion zaldiak batu ditugu. Orain, hasteko, 6 zaldi inguru ditugu, eta baditugu beste gazteago batzuk, trebatzen daudenak. Guztira 10-12 zaldi.

3. Modu berezian trebatu behar izan dituzue zaldiak? Beti ibili izan gara menditik. Gure zaldiek ingurua oso ondo ezagutzen dute, ez dira izutzen. Zaldi guztiak pixkanaka elkartzen joan gara, elkar ezagutzeko. Orain taldea osatzen dute eta oso eroso daude beraien artean. Horrek, ibiltzeko orduan, asko errazten du gauza.

4. Zaldiz ibilbideak egitea da eskaintzen duzuen? Zaldiekin ibilbideak egiteko zerbitzua da, baina zaldi gainean ibiltzen ez dakitenak ere etor daitezke, lasai asko. Izan ere, pertsona bakoitzaren beharretara moldatzen gara. Batzuk lehen aldiz igotzen dira zaldira eta badirudi bizitza guztia daramatela, eta beste batzuei gehiago kostatzen zaie.

5. Zein ibilbide egiteko aukera dago? Eskaintza ezberdina dugu. Batetik, ordu bat edo bi orduko ibilbideak prestatu ditugu gure inguruetan, San Pedron, Basoixin, Saraben: *Milaka urteko hariztiak ezagutuz, Oiletzeko baserrietan barrena, San Pedroko ibilbidea, Dantzalekuko zuhaitz gaineko etxola, Gentilen bila, Gure herrietako kaleetan zehar zaldiz, Altsasutik San Adriango tunelera...* eta, bestetik, egun erdiko eta osoko mendi ibilbideak: *Intxusburuko dolmenera ibilaldia, Santa Marinara ibilaldia, Urbasan barrena...* Gero, interesatuek proposatu ahal dizkiguten ibilaldiak egiteko aukera legoke. Gainera, bezeroak bere zaldi propioa ere ekartzeko aukera izango du, hala nahi badu.

6. Zein ordutegi izanen duzue? Goizeko 10:00etatik 21:00ak arte inguruan egongo gara lanean, baina hori ere egokitu daiteke, bezeroaren eskariaren arabera.

7. Noiz hasiko zarete lanean? Bihar, larunbatean, 16:30etik 20:00etara mustutzea egingo dugu. Nahi duena etor daiteke, gure zaldiak ezagutzera eta zerbitzuaz galdetzeraz. Haurrendako paseotxo batzuk egingo ditugu.

8. Zein da etortzeko adin muga? 7 urtetik gorako haurrek nahikoa indarra dute eta gu haiekin joan gaitzke lasai. Baina ezin ditugu 5-6 urteko 10 haur hartu eta joan. 1 edo 2 bai, baina gehiagorekin helduak edo senitartekoak haiekin etortzea gomendatzen dugu. Bada-

go guk zaldia eskutik helduta eramateko aukera ere, haurra zaldian muntatu eta haurrek probatzeko. Baina ezin da inor zaldira igotzea derrigortu.

9. Zer aholkatzen duzue? Hoberena da gurera etortzea, probatzera. Hasieran zaldiak urrutitik ikusiko ditugu, gero gerturatuko gara, zaldiak ukitu... pertsona bakoitzak bere erritmoa dauka. Esperientzia oso polita da. Normala da hasieran beldur puntu bat izatea, izan ere, animalia bat da, bere pentsamendua du... Baina muntatzaren momentuan lasai bazaudete, nabaritzen duzu nola zaldiak zurekin konektatzen duen, eta hala ko lasaitasun bat sortzen da, ez duzula beste gauzekin aurkitzen. Konexio hori lortzeko hoberena lasai egotea da, eta zaldira igo baino lehen zaldiarekin egon, laztanakin egin, garbitu, trasteak jarri...

10. Zuekin harremanetan jartzeko nora jo behar da? Ondoko telefonoetara deitu: 687 42 48 39 (Idoia) edo 626 74 91 49 (Sebas), errotain@gmail.com postara mezua bidali edo Facebooken Errotain zaldi ibilaldiak orrirra jo.

11. Udarako plan ezberdina: zaldi gainean buelta ematea! Jendeak lasai deitu dezala eta prestatuko dugu; bakoitzaren eskaerara moldatuko gara. Ea jendea animatzen den esperientzia ezberdin bat bizitzera. Dauzkagun mendiak kristonak dira, eta zaldian ibiltzeko esperientzia horri hemengo mendiak gehitzea... disfrutatzeko ikaragarria da.